

IV

BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2025

Bilbao Observatorio

LABURPENEA

2025eko balantzea, oinarri makroekonomikoei dagokienez, espero baino hobea izango da; izan ere, aurreikuspen guztiek behera egin zuten muga-zergen politika alde bakarrez haustea iragarri zutenean (Trumpen Administrazioa). Hala ere, haren lorpena eta eragina aurreikusitakoa baino txikiagoa izan denez, hazkunde ekonomikoa hobea izan da azkenean. Horren adibide da Nazioarteko Diru Funtsak 2025erako aurreikusitako munduko hazkunde ekonomikoa ibilbidea; izan ere, 2025eko urtarrilean % 3,3koa izan zen, uztaillean % 3,0raino jaitsi zen eta 2026ko urtarrilean % 3,3raino berreskuratu da, ekitaldiko informazioaren zati handi bat itxita.

2025a espero baino hobea izan da, baina are hobea izan zitekeen

Ildo horretan, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, *"munduko hazkundeak erresiliente jarraituko du 2026an % 3,3ko mailan eta 2027an % 3,2ko mailan, hau da, 2025ean aurreikusitako % 3,3ko emaitzaren antzeko tasetan"*. Proiekzio horiek inflazioaren beherakadaren ibilbideak daraman garapenean oinarritzen dira, nahiz eta adierazten duen oso baldintzatuta jarraituko duela ziurgabetasun politikoen eta tentsio komertzial eta geopolitikoen nahiz abantaila teknologikoen (AA) lorpen-mailaren (produktibitatearen itzulera) eraginez.

Munduko ekonomia % 3,3 eta % 3,2 haziko da 2026an eta 2027an

Eusko Jaurlaritzaren ustez, EAEko ekonomia % 1,9 eta % 1,6 haziko da 2026an eta 2027an; barne-eskariak duen trakzio-garrantzia berresten du (+% 2,3 eta +% 1,9), etxeen kontsumoak bultzatuta (+% 2,1 eta +% 1,7); horrek kanpo-balantzaren ekarpen negatiboa konpentsatuko baitu (-% 0,4 eta -% 0,3). Era berean, enplegua % 1 inguru haziko da 2026an.

EAEko ekonomia % 1,9 haziko da 2026an

Lan-merkatuaren 2025eko balantzea oso positibotzat jo daiteke. Lehenik eta behin, Bilbok 201.882 pertsona afiliatu izan ditu Gizarte Segurantzaren (abendua), eta kopuru hori maximo historikoa da hiriarentzat. Urte arteko hazkundea % 1,4koa izan da (+2.801 afiliatu gehiago), Erregimen Orokorrak izandako gorakadaren ondorioz (+% 1,8 urte artean; +3.042 pertsona gehiago), eta horrek konpentsatu egiten du Langile Autonomoen Araubide Orokorrak (-% 0,6 eta -133 pertsona) eta gainerako araubideek izandako jaitsiera.

2025ean, 201.882 afiliazio izan ziren (+% 1,4, urte arteko tasan), eta Bilbok maximo historikoa izan zuen

Urteko balantzea positiboa da. Bilbon bizi diren biztanleen artean 118.486 lan-kontratu berri formalizatu dira, eta urtetik urterako gorakada nabarmena izan dute (+% 2,0 eta 2.278 kontratu gehiago). Nabarmenezkoa da emakumeen kontratazioaren dinamismoa (+% 5,1) eta 35 urtetik beherako taldeena (+% 8,4 eta +% 2,5), gizonen (-% 1,2) eta 35 urtetik gorako pertsonen kontratazio berrien beherakada (-% 2,6 eta -% 1,4) konpentsatzen baitute. Azkenik, gora egin du aldi baterako kontratu berrien bolumenak (+% 10,4), eta behera egin du kontratu mugagabeen modalitateak (-% 14,4), kontratazioaren guztizkoan garrantzia galdu baitu (-% 28,5, -5,5 ehuneko puntu).

... biztanleria egoiliarren kontratazioak nabarmen egin du gora (+% 2,0)

2024an zertxobait gora egin ondoren, erregistratutako langabeziak beherakadaren profilari heldu dio berriro 2025ean, eta urtea (abendua) 20.876 langaberekin itxi du Bilbon. Zifra horrek esan nahi du urte arteko jaitsiera % 0,9koa izan dela eta 2024an baino 191 langabe gutxiago daudela, hiruhileko arteko beherapena zertxobait txikiagoa izanik (-% 0,2 eta 51 langabe gutxiago).

...eta erregistratutako langabezia murrizketa izan da (-% 0,9)

Biztanleria Aktiboaren Inkestak (EIN, 2025) biztanleria aktiboaren (+% 5,0) eta landunaren (+% 5,8) gorakada eta langabearen jaitsiera (-% 2,6) berresten ditu, Bilbon. Gainera, enplegu-tasak gora egin du (54,0; +2,3 ehuneko puntu) eta langabezia-tasak behera egin du (% 9,2; -0,7 ehuneko puntu), eta emaitza hobea izan da emakumeentzat gizonentzat baino.

Enplegu-tasaren urte arteko hobekuntza (% 54,0; +2,3 ehuneko puntu)

Sektoreko adierazleek berresten dute Bilboko lan-merkatuan hobekuntza edo bilakaera ona izan dela. Horrela, laugarren hiruhilekoa dinamikotasun txikienekoa izan den arren, 2025eko balantzea positiboa da; izan ere, eutsi egiten dio Bizkaiko merkataritza-sektorearen salmenten urte arteko hazkundearen ibilbideari (+% 1,9 eta +% 0,4, prezio arruntak eta konstanteak), txikizkako merkataritzaren segmentuak (+% 4,0 eta +% 2,8) eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren segmentuak bultzatuta (+% 6,5 eta +% 5,3); izan ere, enpleguaren sendotasunean oinarrituta, ingurunearen ziurgabetasunari aurre egiten diote, eta hori erabakigarria da familien gastu-ahalmenean. Handizkako merkataritza da atzera egin duen bakarra prezio konstanteetan (-% 1,7).

Merkataritza-sektoreko salmentek igoera izan dute (+% 1,9 eta +% 0,4, prezio arruntak eta konstanteak)

Era berean, urteko bigarren hiruhilekorik dinamikoena izan den laugarren hiruhilekoarekin, Bizkaiko saltoki handietako salmentek gora egin dute 2025ean (+% 4,2 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak). Gainerako produktuen (+% 4,0 eta +% 2,5, prezio arruntak eta konstanteak) eta elikaduraren (+% 4,4 eta +% 0,9) jarduera positiboa izan da.

Baita saltoki handietan ere (+% 4,2 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak)

Ibilgailu berrien salmentak % 12,4 egin du gora 2025ean, 15.700 unitaterekin, partikularren segmentuak bultzatuta (+% 17,6), eta erabakigarriak izan dira guztizkoan (% 71,2). Hala ere, 2015 eta 2019 bitartean erregistratutakoak (19.960, batez beste) eta 2007ko maximo historikoa (33.033 ibilgailu berri) baino askoz txikiagoak izaten jarraitzen dute.

Eta ibilgailu berrien matrikulazioak (+% 12,4)

Merkataritzako afiliazioa 20.337 pertsonakoa da, eta urte arteko hazkunde nabarmena izan du (+% 1,2), txikizkako merkataritzak bultzatuta (+% 2,6); ibilgailuen salmenta eta konponketak eta handizkako segmentuak, berriz, behera egin dute (-% 3,3 eta -% 2,8). Enpresa-sarea 2.349 enpresak osatzen dute (-% 0,6) –batez besteko enplegua 6,5 pertsonatan finkatu da–, eta, beste urte batez, enplegu autonomoak pisua galdu du sektorean (% 24,7, -1,2 ehuneko puntu).

Merkataritza-sektoreko afiliazioa hazi egin da (+% 1,2)

Bilbok 2,4 milioi ostatu-gau izan ditu 2025ean, eta 1,2 milioi bidaiari baino gehiago, % 7,8ko eta % 9,3ko urte arteko hazkundearekin, hurrenez hurren. Horrenbestez, 2024an etendako hazkunde-bidea berreskuratu du (-% 1,0 eta -% 2,0 gualdietan eta bidaiarietan, hurrenez hurren). Emaizta hori lortzen lagundu du atzerriko segmentuaren hazkundeak (+% 10,9 eta +% 11,2, gualdietan eta bidaiarietan), eta horren hobekuntza estatuko merkaturaren erregistratutakoa baino handiagoa da (+% 3,9 eta +% 7,2). Horrela, gualdien eta bidaiarien % 56,8 eta % 52,6 atzerriko segmentuari dagozkio, 2,09 eguneko batez besteko egonaldiarekin, Estatuko segmentuan zertxobait txikiagoa izanik (1,76 egun).

2025ean, Bilbok 1,2 milioi bidaiari eta 2,4 milioi ostatu-gau baino gehiago izan ditu

2025. urtea oso mesedegarria izan da Loiuko aireporturako, garraiatutako bidaiariak (+% 4,2) eta kudeatutako eragiketak (+% 3,7) nabarmen igo baitira, eta eragiketa bakoitzeko batez besteko bolumena 130 bidaiarikoa izan da. Garrantzitsua da azpimarratzea ekitaldiaren arrakastaren zati handi bat nazioarteko merkatuak izandako hazkundeak eragin duela (+% 10,6), eta horrek konpentsatu egiten duela segmentu nazionalaren jaitsiera txikia (-% 0,5). Horrela, pixkanaka, bi merkaturaren arteko banaketak berdintzeko joera du (% 55,3 eta % 44,7, estatuko eta atzerriko merkaturako 2025ean, eta % 57,9 eta % 42,1, aldiz, 2024an).

Eta Loiuk 7 milioi bidaiari baino gehiago izan ditu

Bilboko portuak jardueraren atzerakadarekin¹ (-%7,1) itxi du 2025. urtea. Urteko ibilbidea negatiboa izan da, eta urteko bigarren hiruhilekoan izandako jaitsiera nabarmena nabarmendu behar da (-% 24,2), baita lehen eta hirugarren hiruhilekoetan izandakoa ere (-% 3,9 eta -% 0,2). Beraz, laugarren hiruhilekoko hobekuntza urteko ibilbidean lausotu da. Portuko agintaritzak adierazi duenez, "geldialdi hori egin gabe, trafikoaren jaitsiera % 0,5ekoa izango litzateke, Estatuko portu-sistemaren % 0,2ko jaitsierarekin batera". Halaber, tentsio geopolitikoek nazioarteko merkataritza-fluxuetan duten eragina aipatu du, esportazio- eta inportazio-jarduera murriztu baitute.

Bilboko portuaren jarduerak, berriz, atzera egin du (-% 7,1)

¹ Petronorren geldialdi teknikoak baldintzatuta (maiatzetik uztaileara).

Laugarren hiruhilekoan, Bizkaiko industria-produkzioak urte arteko % 2,3ko hazkundeak izan du, batez ere manufaktura-industriak (+% 2,2), energiak, gasak eta lurrinak (+% 4,6) eta urak (+% 1,6) lagunduta. Horiek konpentsatzen dute erauzketa-industrietan izandako jaitsiera nabarmena (-% 10,0). Hirugarren eta laugarren hiruhilekoen emaitza positiboak ez du lehen seiuhileko negatiboa konpentsatu, beraz, Bizkaiko industria-produkzioa apenas hazi da 2025ean. Zehazki, energiaren, gasaren eta lurrunaren jardueraren hazkundeak (+% 3,8) eta uraren egonkortasunak (+0,1) soilik itxi dute modu positiboan, erauzketa-industriaren (-% 3,2) eta manufaktura-industriaren (-% 0,5) atzerakaden aldean.

Bizkaiko industri
jarduera apenas hazi da
2025ean (+% 0,1)

Laugarren hiruhilekoan, zerbitzuen salmentek hazkunde handia izan dute (+% 4,4 eta +% 1,4, prezio arruntak eta konstanteak). Hala, 2025eko balantzea ere positiboa da (+% 4,9 eta +% 2,3), lehen seiuhilekoan izandako emaitza onean (bigarren seiuhilekoaren aldean hobea) oinarrituta, eta 2021ean hasitako hobekuntza-bideari eusten dio. Nabarmenezkoa da garraio- eta biltegiatze-jardueraren urteko dinamismoa (+% 7,3 eta +% 4,5) eta jarduera profesionalak, zientifiko-teknikoak (+% 6,8 eta +% 4,5); sektoreko hazkundeak gaitzen baitute (prezio arruntak eta konstanteak). Azkenik, enplegua % 0,7 hazi da, 2024ko magnitude berean.

Zerbitzuen sektoreko
salmmentek % 4,9ko eta
% 2,3ko igoera izan
dute (prezio arruntak
eta konstanteak)

Urteko azken hiruhilekoan, Bizkaiko ekonomiak hazkunde-erritmoari eutsi zion (+% 2,4 urte artean), eta urteko sekuentzia sendotu egin zen, hiruhilekotan % 2tik gora mantenduz. Horrela, Lurraldeko BPGaren hazkundeak % 2,3koa izan da 2025ean, emaitza oso positiboa, ekitaldia zer ziurgabetasunetan garatu den ikusita. Baina, gainera, hirurteko zail eta oso aldakor batean kokatzen da, neurri handi batean egitura ekonomiko-produktiboarekiko exogenoak diren faktoreek baldintzatuta (gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak eta ziurgabetasun juridikoak).

Emaitza horiek enpleguaren emaitza bultzatzen dute; izan ere, maximo historiko berria lortu du eta 501.586 lanpostutan kokatzen da lanaldi osoko baliokidetzan, urte arteko +% 1,6ko igoerarekin, Lurraldean lehen aldiz milioi erdi lanpostuko muga gaitzen.

501.586 LOB
lanposturekin

Laburbilduz: aurkeztutako informazioak Bilboren eta Bizkaiaren 2025eko ikuspegi ekonomikoa osatzen du, alde aurreko txostenetan aurreratutakoa berretsiz, eta, azkenean, uste baino urte hobea izan da. Horrela, ia jarduera guztiek –kanpoko jarduerak eta portuko jarduerak izan ezik– urte arteko hazkundeak gaitzen den ekitaldia osatu dute. Beraz, pixkanaka hobekuntzarako joera sendotzen ari da hirurteko gorabeheratsu honetan (2023-2025), testuinguru makroekonomikotik kanpoko arrazoen eraginez; besteak beste, Trump administrazioak eragindako ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna nabarmendu behar dira, baita gatazka armatuek eta horiek energia-merkatuetan izan dituzten ondorioak ere, adibidez. Hori dela eta, hainbat eremutatik, 2025ean erregistratutako hazkunde ekonomikoa erresilientea izan da ezbehar horien aurrean, eta horrek saihestu du izan direnak baino inpaktu handiagoak izatea.

2025eko balantzea oso
positiboa da adierazle
ekonomikoetan

Balantze hori Bilboko ekonomiara ere heda daiteke; izan ere, 2025ean ezohiko emaitzak izan ditu enpleguan (200.000 afiliatu baino gehiago), txikizkako merkataritzak, zerbitzu-jardueren bultzada nabarmenak, enpresa-oinarriaren sendotzeak eta sozietate berrien sorreraren dinamismoak bultzatuta, turismo-fluxuaren hobekuntza garrantzitsuarekin batera. 2026rako erronkek adierazten dute inflazioari eutsiko zaiola (Irango gerrak energia-prezioetan izan duen eraginak eraginda), eta industriaren eta eraikuntzaren osagaiek erregistratutako susperraldiari eutsiko zaiola (Lurralde mailan). Gainera, bultzatzaile garrantzitsuak izango da jarduera-panel zabal baten gainean (enpresentzako zerbitzuak), eta presentzia nabarmena izango du Hirian.

2026rako espero den
hazkunde ekonomikoa
txikiagoa izango da

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

2025eko datuak ia itxita, NDFk hurrengo biurtekorako aurreikuspenak doitu ditu, eta "munduko hazkundera 2026an % 3,3ko mailan eta 2027an % 3,2ko mailan mantentzea aurreikusten da, hau da, 2025ean % 3,3ko emaitzaren antzeko tasetan. Iragarpenaren arabera, 2026rako goranzko berrikuspen txiki bat egingo da, eta 2027rako aldaketarik ez 2025eko urriko edizioko zifrekiko". Horrela, Nazioarteko Diru Funtsak munduko ekonomiari buruzko aurreikuspenak hobetzen ditu, nahiz eta adierazi duen ziurgabetasun politikoak eta merkataritza-tentsioek oso baldintzatuta jarraituko duela, jarduera oztopatzen baitute.

Aurreikuspenen hobekuntza horrek berresten du, besteak beste, muga-zergen politikaren² (Trumpen Administrazioa) aldebakarreko aldaketaren eragina aurreikusitakoa baino txikiagoa izango zela. Mundu-mailan, 2025eko hazkunde ekonomikoak hamarren bat egin du hobera urriko aurreikuspenarekiko³, eta ekonomia aurreratueta (+1 hamarren) eta hazten ari diren eta garatzen ari diren ekonomietara (+2 hamarren) zabaldu da. Egokitzapen nabarmenen artean, Euroguneari (+2 hamarren), Txinari (+2 hamarren) eta Indiari (+0,7 hamarren) aplikatutakoa nabarmen diren dira. Baina, batez ere, 2026rako eta 2027rako aurreikuspenen hobekuntza inflazioaren beheranzko joeraren bilakaeran oinarritzen da; izan ere, 2026rako estimazioa ehuneko bi puntu igo da urriko aurreikuspenekin alderatuta.

Munduko ekonomia
% 3,3 eta % 3,2 haziko
da 2026an eta 2027an

Urriko aurreikuspena
baino hobea den
2025eko itxierarekin

Eta inflazioaren
pixkanakako jaitzieran
oinarrituta

Hazkunde ekonomikorako (BPGd) ...(e)(a)n egindako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	Uztaila-2025		Urria-2025		2026ko urtarrila		
	2025	2026	2025	2026	2025	2026	2027
MUNDUKO BPGd-a	3,0	3,1	3,2	3,1	3,3	3,3	3,2
Ekonomia aurreratuak	1,5	1,6	1,6	1,6	1,7	1,8	1,7
Estatu Batuak	1,9	2,0	2,0	2,1	2,1	2,4	2,0
Eurogunea	1,0	1,2	1,2	1,1	1,4	1,3	1,4
Alemania	0,1	0,9	0,2	0,9	0,2	1,1	1,5
Frantzia	0,6	1,0	0,7	0,9	0,8	1,0	1,2
Italia	0,5	0,8	0,5	0,8	0,5	0,7	0,7
Espainia	2,5	1,8	2,9	2,0	2,9	2,3	1,9
Emergenteak eta garatzen ari direnak	4,1	4,0	4,2	4,0	4,4	4,2	4,1
Txina	4,8	4,2	4,8	4,2	5,0	4,5	4,0
India	6,4	6,4	6,6	6,2	7,3	6,4	6,4
Brasil	2,3	2,1	2,4	1,9	2,5	1,6	2,3
Errusia	0,9	1,0	0,6	1,0	0,6	0,8	1,0

Iturria: Nazioarteko Diru Funtsa (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Bestalde, aipatu behar da Nazioarteko Diru Funtsak hobekuntza orokorra proiektatzen duela 2026rako, Estatu Batuei hiru hamarren gehituta. (+% 2,4) eta bi hamarren Euroguneari (+% 1,3), Espainiari (+% 2,3), Alemaniari (+% 1,1) eta Frantziari (% 1,0) esleitutako

2026rako aurreikuspen
ekonomikoen
hobekuntza orokorra

² "Oso litekeena da 2026. urtearen hasieran Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak erabakia hartzea presidentek Nazioarteko Larrialdian Botere Ekonomikoen Legea erabiltzeari buruz", muga-zergen politikaren aldebakarreko aldaketari dagokionez, eta hala izan zen (2026ko otsailaren 26ko ebazpena).

³ 2025eko urtarrileko proiektzioa baino hamarren bat txikiagoa da oraindik, eta urteko lehen seihilekoko muga-zergen desorekaren kostu gisa interpreta daitezke.

doikuntzagatik; horiei hiru, bi eta hamarren bat gehitu zaizkie, hurrenez hurren. Gorabideko eta garapeneko ekonomientzat zenbatetsitako hazkunde-irabazia (+2 hamarren) Txinari (+% 4,5) eta Indiari (+% 6,4) aplikatutako hiru eta bi hamarreneko doikuntzaren ondorio da, Brasilgo eta Errusiako ekonomiei egindako beheranzko doikuntzen aldean, hiru eta bi hamarren galdu baitituzte, hurrenez hurren.

Erakundearen ustez, kontrako tentsioek eta ziurgabetasun geopolitikoak bere horretan jarraituko dute, eta horrek eragin negatiboa izango du finantza-merkatuetan eta hornidura-kateetan. Baina nabarmenezkoa da inflazioa eta epe ertaineko hazkunde ekonomikoa bultzatzen duten politika monetario eta fiskalak beherantz doitzearen garrantzia, ziurgabetasuna murriztuko baitute eta egiturazko erreformak bultzatu beharko bailituzkete. Alde onen eta txarren balantze horren emaitza hazkunde sendo eta iraunkorra da (egiturazko faktoreetan oinarrituta), eta, azken batean, merkataritza-arloan sortutako nahasmenduari (faktore koiunturala) aurre egiteko gai izango dena.

Etkeen konfiantza eta aurrezkia

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	2024	2025	2025			
			I	II	III	IV
Etkeen konfiantza¹ (±100)						
UE-27	-12,9	-13,1	-13,3	-13,6	-13,2	-12,4
Espainia ²	-15,2	-2,3	--	-3,3	-2,7	-0,9
Etkeen aurrezpena³; Δ % urte artean	4,2	3,5	4,6	3,9	5,3	3,5

1. Hiruhileko datua, hileko datuen batezbestekoa eta urteko datua, hiruhileko datuen batezbestekoa.

2. Eurostat; 2025eko II. hiruhilekotik aurrera, serie berria Espainiarentzat, eta ezin da alderatu 2024ra arte erabilgarri dagoenarekin.

3. Gordailuak. Hiruhileko datua, hiruhileko bakoitzaren azken hilabetearen itxierari buruzkoa, eta urteko datua, urte bakoitzeko abenduari dagokiona.

Europako etxebizitza-unitateak⁴ ezkorak dira oraindik, eta urteko bigarren hiruhilekotik hobera egin duten arren, 2025eko balioak 2024koaren antzekoak dira (-13,1 eta -12,9, hurrenez hurren). Ezkortasun hori nazioarteko ziurgabetasunaren ondorio da (nazioarteko merkataritza-jardueraren narriadura edo gertuko gerra-gatazken konponbidean aurrerapen txikia, adibidez, komunikabideetan eragin handia duena), baita herrialde bakoitzaren itxaropen ekonomikoen ondorio ere; izan ere, ez dira oso dinamikoak Europako ekonomia handietan, Espainia izan ezik⁵, ez baita Europar Batasuneko batezbestekoa bezain ezkorra.

Europako etxeak
ezkorak dira oraindik

Hala eta guztiz ere, Europako ia merkatu guztiak daude enplegu-maximoetan⁶, eta hori ez da nahikoa familien konfiantza hobetzeko; izan ere, inflazio-ibilbidea ez da eten, eta prezioen batez besteko maila pandemiaren aurretik baino nabarmen altuagoa utzi du. Hala eta guztiz ere, hobetu egin da Espainiako familien aurrezki-tasa (+% 3,5), gordailuen⁷ saldoa berriro hazi baita, 1.058.040 milioi eurotan kokatuz (2025eko abendua).

⁴ Kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea eraikitzeko etheen azken eta hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa, hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoro orokorra eta hurrengo hamabi hilabeteetako erosketak handiak kontuan hartzen dira.

⁵ Eurostat (Restoration of consistent consumer survey time series for Spain, 2025eko abendua) Espainiako Kontsumitzaileen Konfiantza Indizearen seriea eguneratu du, 2025eko lehen hiruhilekotik etenda zegoena (hornitzaile-aldaketa eta doikuntza metodologikoa).

⁶ Eurostaten arabera, 2025ean (urteko batezbestekoa) 27-EBko langabezia-tasa (15-74 urtekoa) biztanleria aktiboaren % 6 da, eta 2019ko erregistroa baino txikiagoa da (-0,7 ehuneko puntu). Hobekuntza Espainian ere gertatu da (% 10,5, -0,7 ehuneko puntu). Frantzia (% 7,7, -0,7 ehuneko puntu), Italia (% 6,1, -3,8 ehuneko puntu) edo Portugal (% 6,0, -0,6 ehuneko puntu) ere EBko batezbestekoaren antzeko edo hortik gorako langabezia-tasetan daude, edo Herbehereak (+% 3,8, -0,7 ehuneko puntu), baina ez da hala gertatu Danimarkan (% 6,4, +1,4 ehuneko puntu), Alemanian (% 3,8, +0,8 ehuneko puntu) eta Austrian (% 5,7, +0,9 ehuneko puntu); horietan, emaitzek okerrera egin dute 2019. urtearekin alderatuta.

⁷ Espainiako etheen Bestelako Finantza Erakunde Monetarioetako gordailuen saldoa.

Euskal ekonomia

Eusko Jaurlaritzaren⁸ aurreikuspenen arabera⁹, euskal ekonomia % 1,9 eta % 1,6 haziko da 2026an eta 2027an. 2025eko irailean aurreratutakoa ez bezala (+% 2,0 urte arteko tasan, 2026ko lehen bi hiruhilekoetan), agertoki berri honetan lehen hiruhilekoko aurreikuspena hobetu da, baina urteko gainerako hiruhilekoen ibilbidea jaitsi da.

Era berean, aurreikuspen berriak barne-eskariaren hazkundera indartzen du (+% 2,3, +0,1 ehuneko puntu), inbertsioari esleitutako hobekuntzari esker (+% 3,1, +0,8 ehuneko puntu), konpentsatu egiten baititu kontsumo pribatuaren hazkundera aplikatutako murrizketa (+% 2,1, -0,1 ehuneko puntu) eta kontsumo publikoaren egonkortasuna (+%1,9, bi aurreikuspenetan). Kanpo-saldoaren ekarpenak okerrera egin du (-0,2 ehuneko puntu) eta negatiboagoa izan da (-% 0,4). Gainera, kalkulaturako bilakaera-profilak etxeen kontsumoaren eta inbertsioaren dezelerazioa erakusten du, kontsumo publikoaren egonkortasunaren aurrean.

Doikuntza hori lau jarduera-sektore handietara hedatzen da, lehen sektorearen (-0,3 ehuneko puntu) eta industria eta energiaren (-0,6 ehuneko puntu) hazkundera murriztuz eta eraikuntzarena (+0,7 ehuneko puntu) eta zerbitzuena (+0,1 ehuneko puntu) hobetuz. Horrela, % 2tik gorako hazkundera kalkulatzeko eraikuntzan (+% 2,7) eta zerbitzuetan (+% 2,2); atalase hori baino txikiagoa izango da industrian eta energian (+% 1,0), eta are txikiagoa lehen sektorean (+% 0,4).

EAEko ekonomia
% 1,9 haziko da
2026an

...erabakigarria izanik
etxeetako
kontsumoaren
hazkundera (+% 2,1)

...baita eraikuntzaren
eta zerbitzuen
dinamismoa ere,
industria-atonaren
aurrean

Euskal Autonomia Erkidegoa. Egoera makroekonomikoa

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %						
	2025eko iraila 2026	2026ko urtarrila (Hiruhilekoko bereizketa)				2026	2027
		I-26	II-26	III-26	IV-26		
BPGd-a	1,9	2,1	1,9	1,8	1,8	1,9	1,6
Etxeen kontsumoa	2,2	2,4	2,0	2,0	1,9	2,1	1,7
Kontsumo publikoa	1,9	1,9	2,0	2,0	1,7	1,9	1,6
Inbertsioa (KEG)	2,3	3,9	3,4	2,4	2,8	3,1	2,7
Barne-eskariaren ekarpena	2,2	2,7	2,4	2,1	2,1	2,3	1,9
Kanpo-saldoaren ekarpena	-0,2	-0,6	-0,4	-0,3	-0,3	-0,4	-0,3
Lehenengo Sektorea	0,7	-3,5	1,7	-0,9	4,1	0,4	2,6
Industria eta energia	1,6	0,8	0,9	1,2	1,2	1,0	1,5
Eraikuntza	2,0	4,3	3,2	1,6	1,9	2,7	1,7
Zerbitzuak	2,1	2,6	2,2	2,0	1,9	2,2	1,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Zuzendaritza (2025eko abendua).

2025eko abenduan, EAEko termometro ekonomikoa¹⁰ 104,2 puntukoa izan zen; azaroko datua (107,6) izan zen azken 35 hilabeteetako emaitzarik onena (110,9, 2023ko urtarrila) eta, bosgarren hilabetez jarraian, 100 puntuko muga gainditu zuen, hirurtekoaren hobekuntza-ibilbidea sendotuz. Urteko batez bestekoan, 2025ek (100,2) du erregistrorik onena 2022tik (123,9), eta 2023ko (93,2) eta 2024ko (88,8) emaitzak gainditu ditu, haiek ez baitziren 100 puntura iritsi.


⁸ 2026ko urtarrilean argitaratutako kalkulak.

⁹ Aurreikuspenen tartean dago, % 2,2 (BBVA) eta % 1,8 (Laboral Kutxa) artean.

¹⁰ Erreferentzia-unearen egoeraren adierazlea: hazkunde irmoa (100 eta gehiago), leuna (50-100) eta desazkundera (50etik behera).


Euskal enpresen itxaropenak¹¹ 2026an hobetu egin ziren, enpresen itxaropenak hobetu zirenean (56,5, +2,9 puntu), neurri handi batean, prezioek gora egin zutelako, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 17,7 ehuneko puntu igo baitziren. Gainerako osagaiak egonkor mantendu ziren, edo dezelerazio txiki baten barruan.

Euskal ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritza Ekonomia Zuzendaritza

EAEko enpresa-aurreikuspenak



Iturria: Enpresa-konfiantza. Laboral Kutxa

Azkenik, EAEko etheen konfiantzak¹² profil apur bat ezkorra erakusten du (-9). Emaitza hori ekonomia orokorraren martxari lotutako aurreikuspen kaskarren ondorioa da (-22), eta, neurri txikiagoan, etxeko ekonomiari lotutakoaren ondorio (-9), ezin izan baita konpentsatu enpleguaren martxaren itxaropenei (+3) eta familien aurrezteko gaitasunari (+3) buruz aurreikus litekeen balantze positiboarekin.

¹¹ EAEEn aktibo dauden 400 enpresari egindako inkesta (2026ko azaroaren 7tik 12ra). Enpresa-itxaropenak, adierazle partzialen batez bestekoa.

¹² EAEko 800 etxetan egindako kontsulta, 2025eko azaroaren 13tik 28ra.

Euskal etheen konfiantza

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2023	2024	2025	2025			
				I	II	III	IV
Etheen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-9	-4	-6	-4	-6	-6	-9

Iturria: EAEko etheen konfiantza. Laboral Kutxa

Prezioak eta inflazioa

Abenduan prezioen hazkundea % 3,0 ingurukoa izan da (+% 2,9, +% 2,9 eta +% 3,0 Estatuan, EAEn eta Bizkaian), eta apur bat moteldu da hazkundea irailarekin, urriarekin eta azaroarekin alderatuta. Horrela, KPI orokorraren urteko batez besteko igoera (+% 2,7, +% 3,0 eta +% 3,0) urteko itxiera-balioaren antzekoa da (abendua), eta emaitza okerragoa da EAEn eta Bizkaian Estatuan baino.

Abenduan inflazioak gora egin zuen, baina % 3an geratu zen

Azpiko osagaiak izandako hazkundeak urteko baliorik handienak izan ditu azaroan eta abenduan (+% 2,6) Estatuan, baina EAEn ekainean eta azaroan izan ziren (+% 2,6 eta +% 2,7), eta jarduera hobea izan zuten abenduan (+% 2,4). Bi kasuetan, eta puntualki emaitza desberdinekin, azpiko inflazioaren hazkunde-profila nagusitzen da; eta edonola ere urteko balantzea (% 2,4 eta % 2,6 Estatuan eta EAEn, hileko batez bestekoan), 2024an baino onuragarriagoa izatea lortu da (+% 2,9 eta +% 3,2).

KPI Espainian, EAEn eta Bizkaian

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

		KPI orokorra			Azpiko KPIa ¹	
		Estatua	EAE	Bizkaia	Estatua	EAE
2024	azaroa	2,4	2,9	2,9	2,4	2,8
	abendua	2,8	3,6	3,6	2,6	3,3
	urteko batezbestekoa	2,8	3,1	3,2	2,9	3,2
2025	urtarrila	2,9	3,5	3,4	2,4	2,9
	otsaila	3,0	3,3	3,1	2,2	2,4
	martxoa	2,3	2,8	2,7	2,0	2,5
	apirila	2,2	2,6	2,5	2,4	2,8
	maiatza	2,0	2,4	2,4	2,2	2,5
	ekaina	2,3	2,8	2,8	2,2	2,7
	uztaila	2,7	3,0	2,9	2,3	2,5
	abuztua	2,7	2,8	2,7	2,4	2,5
	iraila	3,0	3,3	3,2	2,4	2,6
	urria	3,1	3,2	3,3	2,5	2,5
	azaroa	3,0	3,2	3,4	2,6	2,7
	abendua	2,9	2,9	3,0	2,6	2,4
	urteko batezbestekoa	2,7	3,0	3,0	2,4	2,6

1. Landu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabe. Ez dago eskuragarri Bizkaian.

Iturria: EIN. 2025 oinarria

Era berean, urtearen amaieran, aztertutako herrialde gehienetan (Eurostat, KPI harmonizatua) prezioen hazkundearen dezelerazioa berretsi da; zehazki, % 2,0koa eta % 2,3koa izan da Euro Eremuan eta EB-27n. Europako inflazioaren beherapen hori udazkenean Italian (-% 0,5), Frantzia (-% 0,4), Alemanian (-% 0,3), Herbehereetan (-% 0,3) eta Danimarkan (-% 0,3) izandako dezelerazioaren ondorio da, Espainiako egonkortasunaren aldean (-% 0,0).

Euroguneko inflazioa
% 2koa da

Hala ere, azpiko inflazioaren bilakaera lurrunkorragoa izan da, eta jaitsierak izan ditu Alemanian (-% 0,3), Italian (-% 0,3) eta Frantzia (-% 0,2). Hazkunde handiak izan ditu Espainian (+% 0,3), Herbehereetan (+% 0,2) eta Danimarkan (+% 0,1).

Egoera horretan, Europako Banku Zentralak (2025eko abenduaren 18a) berretsi zuen gordailu-erraztasunari, finantzaketa-eragiketa nagusiei eta kreditu-erraztasun marjinalari aplikatzekoak zaizkien interes-tasak aldaketarik gabe mantenduko direla, % 2,0, % 2,15 eta % 2,4, hurrenez hurren. Erabaki hori 2026ko otsailaren 5ean berretsi zen. Erabaki horren arabera, *"langabezia-maila baxua, sektore pribatuaren balantzeen sendotasuna, defentsarako eta azpiegiturarako gastu publikoaren pixkanakako gauzatzea eta interes-tasen aurreko jaitsieren ondorio mesedegarriak hazkundera bultzatzen ari dira. Aldi berean, ordea, aurreikuspenek ziurgabe izaten jarraitzen dute, bereziki munduko merkataritza-politiken inguruko egungo ziurgabetasunagatik eta tentsio geopolitikoengatik"*. Beraz, erabakiaren zati garrantzitsu bat oinarritzko adierazleen sendotasunean oinarritu zuen, eta ondorengo doikuntzak inflazioaren bilakaera alda zezaketen aldi baterako faktoreen eraginaren esku utzi zituen.

EB-27ko KPI bateratua eta Europako ekonomiak. Abendua / Diciembre 2025

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	urte arteko tasa		Diferentzia / 25eko ira. (ehuneko puntuak)	
	KPI orokorra ¹	Azpiko KPIa ²	KPI orokorra	Azpiko KPIa
Eurogunea	2,0	2,3	-0,2	-0,1
Alemania	2,0	2,4	-0,3	-0,3
Frantzia	0,7	1,4	-0,4	-0,2
Espainia	3,0	2,8	0,0	0,3
Italia	1,2	1,9	-0,5	-0,3
Herbehereak	2,7	3,0	-0,3	0,2
Danimarka	1,9	2,3	-0,3	0,1
Suedia	2,1	2,2	-1,1	-0,6
UE-27	2,3	2,6	-0,3	-0,1


1. HICP - KPI orokor bateratua; 2. HICP - Prestatu gabeko elikagaiarik eta produktu energetikorik gabeko KPI
Iturria: Eurostat

Hamabi hilabeterako Euriborraren ibilbideak¹³ goranzko joera izan du, nahiz eta erreferentzia-tasak (EBZ) ez diren aldatu, baina banku-merkatuen itxaropenen aldaketa islatzen du, tasen igoera aurreikusten baitzuten. Hala eta guztiz ere, hamabi hilabeterako Euriborraren urteko batez besteko balioa % 2,22koa da 2025ean, 2024koa baino askoz txikiagoa (% 3,27), eta finantza-kostuaren beheranzko joera berresten du.

Hamabi hilabeterako
Euriborra % 2,22koa
da (urteko
batezbestekoa)

¹³ Europako bankuek urtebeteko eperako elkarri mailegatzten dioten batez besteko interes-tasa.

Euriborra, 12 hilabetera (%)



Iturria: Espainiako Bankua


EAEko BPGd-a

2025eko laugarren hiruhilekoan (Eustat) euskal ekonomia % 2,4 eta % 0,5 hazi zen urte artean eta hiruhileko artean, hurrenez hurren, azken hiruhilekoetako hazkunde-profilari eutsiz. Izan ere, azpimarratu behar da urte arteko hazkunde-bideak % 2ko atalasearen gainetik jarraitu zuela urte osoan zehar (+% 2,1, +% 2,2, +% 2,3 eta +% 2,4, 2025eko lehen hiruhilekotik laugarrenera), eta urtearen bigarren erdian jardun hobea izan zuela, muga-zergen krisiaren iragarpenik txarrenak desagertuz joan baitziren.

EAEko BPGd-ak % 2,3 egin zuen aurrera 2025ean.

Hiruhilekoen arteko ibilbidea positibotzat jo daiteke, urtearen hasieran (+% 0,7) ez baitzen muga-zergen ziurgabetasun hori jasotzen, eta horren eragina txikiagotzen joan da urtean zehar. Emaita hiruhilekoen arteko hazkunde-eredu iraunkorra da (+% 0,5, +% 0,6 eta +% 0,5, bigarren hiruhilekotik laugarrenera), nahiz eta Trumpen administrazioaren beste albiste eta ekimen batzuek ziurgabetasun geopolitikoa eragin duten nazioartean¹⁴.

EAEko BPGd-a



¹⁴ NATOko herrialde aliatuekin izandako gatazkak, Ukrainako gerran izan zuen papera zalantzan jartzea, Venezuelan esku hartzea, Groenlandiari buruzko asmoak...

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Laugarren hiruhilekoko dinamismoa zerbitzuen eta eraikuntzaren sektoreen portaera onaren emaitza da. Ildo horretan, zerbitzuen sektoreak % 2,7 eta % 2,9 arteko hazkundeak izan ditu urteko lau hiruhilekoetan, eta EAEko hazkunde ekonomikoan duen papera indartu du. Gainera, eraikuntzak bere dinamismo handia berresten du, % 5 inguruko hazkundeekin urteko azken bi hiruhilekoetan.

Ildo horretan, bi sektoreen bilakaera funtsezkoa izan da EAEko hazkunde ekonomikoan; industriaren hazkunde txikiagoarekin osatzen da hori (+% 0,4, +% 0,1, +% 0,2 eta +% 0,9, urteko lehen hiruhilekotik laugarrenera) eta lehen sektorearen okertzearekin, negatiboan 2025eko bigarren hiruhilekotik.

Enpleguari buruzko datuek bat egiten dute EAEko une ekonomiko onarekin, eta hazkunde-profilari eta -mailari eutsi diote 2025 osoan (+% 1,5; +% 1,4; +% 1,4 eta +% 1,4, urteko lehen hiruhilekotik laugarrenera). Horren ondorioz, 2025ean, EAEk 998.936 lanpostu ditu lanaldi osoko baliokidetzan, hau da, % 1,4ko urte arteko hazkundera eta 2024an baino 13.933 enplegu gehiago. Gainera, milioi bat lanpostuko (LOB) hesiaren atarian geratzen da.

Milioi bat enplegatu
EAEn

Enpleguaren dinamismoak zerbitzuen sektorearen bultzada islatzen du (urte arteko +% 1,7; 2025 osoan EAEko guztizko enpleguaren % 72,4) eta, neurri txikiagoan, baita eraikuntza ere (urtetik urterako +% 1,9; EAEko guztizko enpleguaren % 6,2). Azkenik, industriak eta energiak gora egin dute pixka bat (+% 0,3), baina behera egin du enpleguan oro har duten pisuak (% 20,3, -0,2 ehuneko puntu), eta lehen sektoreak 2024an baino lanpostu gutxiagorekin itxi du urtea (-% 0,5).

EAEko BPGd-a, sektoreen arabera

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	2024	2025	2024 IV	I	II	2025 III	IV
BPGd-a	2,5	2,3	2,0	2,1	2,2	2,3	2,4
Lehenengo Sektorea	4,3	-0,6	3,4	0,6	-0,4	-1,5	-1,2
Industria eta energia	2,0	0,4	0,7	0,4	0,1	0,2	0,9
Eraikuntza	2,0	3,7	1,3	1,7	3,1	5,1	4,9
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,5	2,7	2,8	2,9	2,8
LOB enplegua	1,5	1,4	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtaro- eta egutegi-ondorioei buruzko datu zuzenduak BPGd-a bolumen kateatuaren indizeari dagokionez, 2022ko oinarrian.

LAN-MERKATUA


Afiliazioa

2025eko laugarren hiruhilekoan, Bilbok 201.882 pertsona afiliatu ditu Gizarte Segurantzari, hau da, gehieneko historikoa. Horrez gain, Bilbon afiliatutako 200 mila pertsonen muga gainditu du, eta hala islatzen da enplegua Bilbon bizitzen ari den une ona. Urte arteko hazkundea % 1,4koa izan da, 2024ko abenduan baino 2.801 afiliatu gehiago; hiruhileko artean afiliazioa % 2,4 hazi da eta irailean baino 4.688 afiliatu gehiago ditu.

Bilbok 200 mila
afiliatu baino
gehiago ditu

Hiriko enpleguaren bilakaerak hazkunde iraunkorreko ibilbidea erakusten du: alde batetik, azken lau urteek enplegua gehitzen jarraitu dute, 2020-2021 biurtekoan izandako atzerakada eta 2022tik 2025era izandako ziurgabetasuna gorabehera (inflazioa, Ukrainako gerra, Gazako inbasioa, muga-zergen krisia), eta, bestetik, eta perspektiban ikusita, 2019ko enplegua gainditu da.

Afiliazioa



Iturria: Gizarte Segurantza

Araubide Orokorriari lotutako afiliazioaren hazkundea nabarmendu behar da (urtetik urterako +% 1,8; +3.042 pertsona gehiago); izan ere, konpentsatu egiten ditu Langile Autonomoen Araubide Orokorrak (-% 0,6; -133 pertsona), Etxeko Langileen Araubide Orokorrak (-% 1,5; -97 afiliatu) eta gainerako araubideek (-% 1,6; -11 afiliatu gutxiago) izandako jaitsierak. Hala ere, hiruhilekoen arteko terminoetan, laugarren hiruhilekoan dinamismo orokorra ageri da, % 2,7, % 0,6 eta % 1,6ko hazkundeekin Araubide Orokorreko, Autonomoen eta Etxeko Langileen Araubideetako afilazioetan, hurrenez hurren.

Enpleguaren
dinamismoa bat dator
Araubide Orokorren
bultzadarekin

Ekarpenaren banaketari eutsi egin zaio, eta Araubide Orokorrek afilazio osoaren % 85,7 ekarri du. Ekarpene hori Langile Autonomoen Araubide Bereziaren ekarpenarekin (% 10,9) eta,

garrantzi txikiagoarekin, Etxeko Langileen Araubidearen ekarpenarekin (% 3,1) eta gainerako araubideen ekarpenarekin¹⁵ (% 0,3)osatzen da; azken horien pisua marginala da.

Afiliazioa, araubideen arabera

	12.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko irailarekiko)	Δ % urte artekoa (2024ko abenduarekiko)
GUZTIRA	201.882	2,4	1,4
Araubide orokorra	172.996	2,7	1,8
Autonomoak	22.005	0,6	-0,6
Etxeko langileak	6.194	1,6	-1,5
Bestelakoak	687	-10,4	-1,6

Iturria: Gizarte Segurantza

Afiliatuak, jarduera-adarren arabera

	12.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko irailarekiko)	Δ % urte artekoa (2024ko abenduarekiko)
Lehenengo Sektorea	230	-22,6	-3,4
Industria eta Energia	8.384	-9,9	-7,3
Industria	4.675	-15,5	-11,4
Energia	1.133	-0,4	-2,7
Hondakinak eta ura	2.576	-2,1	-1,1
Eraikuntza	9.391	-0,2	0,8
Eraikuntza	3.255	-1,4	-2,6
Eraikuntza-laguntzailea	6.136	0,5	2,6
Zerbitzuak	183.869	3,2	1,9
Merkataritza	20.667	2,7	-0,9
Garraioa eta biltegiatzea	10.297	1,2	1,2
Ostalaritza	11.666	1,6	1,8
Ostatua	1.927	-6,5	-0,5
Informazioa eta komunikazioak	10.957	3,4	2,4
Finantzak eta aseguruak	7.829	0,4	2,4
Higiezin jarduerak	1.212	0,1	-1,6
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	15.756	0,7	1,6
Administratiokoak eta laguntza zerbitzuetakoak	19.342	1,1	5,0
Administrazio publikoa	12.331	3,4	-0,2
Hezkuntza	26.705	6,8	2,9
Osasuna	16.169	2,6	2,4
Gizarte-zerbitzuak	10.826	9,4	3,1
Aisialdikoak eta kulturalak	4.814	12,6	6,0
Etxeko langileak	6.617	1,2	-1,8
Beste zerbitzu batzuk	6.754	3,6	1,4

Oharra: Kopuru osora arteko aldea sektore-esleipena zehaztu gabe duten afiliazioei dagokie.
Iturria: Gizarte Segurantza

¹⁵ Nekazaritza-araubidea eta itsasoko araubidea barne.

Afiliazioaren urte arteko bilakaera, jarduera-sektoreen arabera, desberdina da, eta hobeak izan ditu zerbitzuen sektorean (+1,9) eta eraikuntzan (+% 0,8); aldiz, jaitsierak izan ditu industrian eta energian (-% 7,3) eta lehen sektorean (-% 3,4). Zehazki, nabarmentzekoak dira, besteak beste, honako jarduera hauen urte arteko dinamismoa: hezkuntza (+% 2,9), osasuna (+% 2,4), informazioa eta komunikazioak (+% 2,4), ostalaritza (+% 1,8), garraioa eta biltegiatzea (+% 1,2); baina jaitsierak izan dira merkataritzan (-% 0,9), administrazio publikoan (-% 0,2), ostaluetan (-% 0,5) eta etxeko langileetan (-% 1,8).

Zerbitzuetako eta eraikuntzako enpleguak gora egin du

Bilakaera desberdina izan du, jarduera-adarren arabera

Hiruhileko arteko bilakaerari dagokionez, baterako portaera ona zerbitzuen sektoreko adarretan izandako hazkundearen emaitza da, horiek baitira iraileko balioarekin alderatuta hobera egin duten bakarrak, eta gainerako jarduera-adarretan afilazioan izandako atzerakada konpentsatzen dute.

Benchmarking. Afiliazioa

	12.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko irailarekiko)	Δ % urte artekoa (2025eko abenduarekiko)
Madril	2.463.701	2,4	3,0
Bartzelona	1.256.172	0,6	1,4
Valentzia	483.528	2,3	4,3
Sevilla	424.912	1,9	2,6
Zaragoza	330.429	0,2	2,1
G-5en batezbestekoa	--	1,5	2,7
BILBO	201.882	2,4	1,4
Gasteiz	131.769	1,4	1,7
Donostia	128.868	1,3	1,4
Pamplona-Iruñea	119.080	0,6	2,1
G-3ren batezbestekoa	--	1,1	1,8
G-9ren batezbestekoa	--	1,5	2,3

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Gizarte Segurantzak

Azkenik, erreferentziazko hiriburuei dagokienez, guztiek egiten dute hobera enpleguan. Nabarmentzekoa da Valentzian (+% 4,3), Madrilan (+% 3,0), Sevillan (+% 2,6), Zaragozan (+% 2,1) eta Bartzelonan (+% 1,4) erregistratutako afilazioaren urte arteko hazkundera. Horren ondorioz, batez beste, Estatuko hiriburu-afilazioa (G-5) % 2,7 igo da urte batetik bestera. Zentzu horretan, Bilbo eta Bartzelona dira 2025ean afilazioan dinamismo txikiena izan duten bi hiriburu nagusiak.

Erreferentziazko hiriburu guztiek hobetu dute afilazioa

Gainera, EAEko hiriburu-afilazioak ere hobera egin du azken urtean (+% 1,8 batez beste G-3 multzoan), Iruñean (+% 2,1), Gasteizen (+% 1,7) eta Donostian (+% 1,4) izandako bilakaera positiboaren ondorioz.

Kontratuak

2025eko laugarren hiruhilekoan (urritik abendura), 32.470 kontratu berri erregistratu dira Bilbon bizi diren pertsonen artean, eta hiruhileko arteko (% 2,4) eta urte arteko (% 2,5) igoera izan da. Urtetik urterako dinamismo hori gizonezkoen (+% 2,9) eta emakumezkoen (+% 2,1) kolektiboetara hedatzen da, baita talde gazteenera ere (+% 13,2), eta horrek konpentsatzen du 25 urtetik gorako taldeen kontratazioaren jaitsiera. Sektoreka, hazkundea orokorra da, eta lehen sektorea da atzera egin duen bakarra. Gainera, kontratu mugagabeak (+% 5,7) aldi baterakoak (+% 1,3) baino askoz gehiago hazi dira.

32.470 lan-kontratu berri urteko laugarren hiruhilekoan

Hiruhilekoen arteko jardueran zentratuta (+% 2,4), dinamismo hori nabarmen handiagoa da emakumeen kontratazioan (+% 4,3) gizonen kontratazioan baino (+% 0,4). Era berean, pertsona gazteenen kontratazioak behera egin du (-% 6,2), baina gainerako adin-taldeetan gora egin du (+% 3,6, +% 4,8 eta +% 9,0, hurrenez hurren). Eta, sektoreen arabera, zerbitzuen sektorearen hobekuntza (+% 3,1) eta eraikuntzarena (+% 4,6) nabarmentzen dira, eta industriako eta energiako kontratazioaren jaitsiera konpentsatzen dute (-% 8,9).

Urteko balantzea positiboa da. Bilbon bizi diren biztanleen artean 118.486 lan-kontratu berri formalizatu dira, eta urtetik urterako gorakada nabarmena izan dute (+% 2,0 eta 2.278 kontratu gehiago). Nabarmentzekoa da emakumeen kontratazioaren dinamismoa (+% 5,1) eta 35 urtetik beherako taldeena (+% 8,4 eta +% 2,5), gizonen (-% 1,2) eta 35 urtetik gorako pertsonen kontratazio berrien beherakada (-% 2,6 eta -% 1,4) konpentsatzen baitute. Azkenik, gora egin du aldi baterako kontratu berrien bolumenak (+% 10,4), eta behera egin du kontratu mugagabeen modalitateak (-% 14,4), kontratazioaren guztizkoan garrantzia galdu baitu (-% 28,5, -5,5 ehuneko puntu).

2025ean, biztanleria egoiliarren kontratazioa % 2 igo da urte batetik bestera

Kontratuak

	2024	2025	Δ % urte artean	IV.2025	Δ % Hiruhileko artekoa	Urte artean
GUZTIRA	116.208	118.486	2,0	32.470	2,4	2,5
Emakumeak	57.940	60.917	5,1	16.738	4,3	2,1
Gizonak	58.268	57.569	-1,2	15.732	0,4	2,9
16-24 urte bitartekoak	29.178	31.631	8,4	8.651	-6,2	13,2
25-34 urte bitartekoak	32.878	33.710	2,5	9.058	3,6	-0,4
35-44 urte bitartekoak	22.360	21.786	-2,6	5.866	4,8	-2,8
45 urte eta gehiagokoak	31.792	31.359	-1,4	8.895	9,0	-0,1
Mugagabeak	39.460	33.768	-14,4	9.074	-1,2	5,7
Aldi baterako kontratuak	76.741	84.692	10,4	23.396	3,9	1,3
Lehenengo Sektorea	1.769	1.786	1,0	538	9,1	-23,4
Industria eta energia	8.523	8.937	4,9	2.207	-8,9	9,6
Eraikuntza	4.216	4.252	0,9	1.041	4,6	7,1
Zerbitzuak	101.685	103.507	1,8	28.684	3,1	2,5

Bilbon bizi den pertsonen erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: Lanbide


Erregistratutako langabezia

2024an zertxobait gora egin ondoren, erregistratutako langabeziak beherakadaren profilari heldu dio berriro 2025ean, eta urtea (abendua) 20.876 langaberekin itxi du Bilbon. Zifra horrek esan nahi du urte arteko jaitsiera % 0,9koa izan dela eta 2024an baino 191 langabe gutxiago daudela, hiruhileko arteko beherapena zertxobait txikiagoa izanik (-% 0,2 eta 51 langabe gutxiago).

Bilbok erregistratutako langabeziaren beste jaitsiera batekin itxi du 2025a (-% 0,9 urte arteko tasan)

Urte arteko jaitsiera hori gizonezkoen portaera onaren ondorio da (-%2,0); aldiz, emakumeen kolektiboa egonkor dago (% 0,0). Bestalde, 25 urtetik gorako taldeetan langabeziak behera egin du (-% 1,2, -% 2,4 eta -% 0,5, 25-34 urte, 35-44 urte eta 45 urte eta gehiago, hurrenez hurren), eta gazteen taldean soilik mantendu da (+% 0,1). Era berean, gora egin dute langabezia urtebete daramaten pertsonen kopuruak (+% 0,8 eta +% 2,2, 6 hilabete eta 6 hilabetetik urtebetera), eta egoera horretan urtebete baino gehiago daramaten taldeen kopuruak behera egin du (-% 5,7, -% 3,0 eta -% 1,1). Azkenik, behera egin du prestazioak kobratzen dituzten langabeen kolektiboak (-% 15,0), eta gora, berriz, prestaziorik kobratzen ez dutenak (+% 4,5).

Erregistratutako langabezia



Iturria: SEPE

Erregistratutako langabeziaren hiruhileko arteko jaitsiera (-% 0,2) urte arteko tasarena (-% 0,9) baino txikiagoa da. Ildo horretan, emakumeen langabeziaren jaitsierak (-% 1,9) konpentsatu egin du gizonek izandako hazkundera (+% 2,0). Gainera, adin-taldearen arabera bilakaera desberdina izan da, 25-34 urteko eta 45 urtetik gorako taldeetan jaitsierak izan baitira (-% 2,6 eta -% 0,3), eta igoerak, aldiz, gainerako adin-taldeetan (+% 0,7 eta +% 1,5, 16-24 urtekoetan eta 35-44 urtekoetan). Era berean, langabezia daramaten denborari dagokionez, jaitsi egin dira 6 hilabete eta urtebete bitartean daramaten taldeak (-% 3,4) eta 2 eta 3 urte bitartean daramatzatenak (-% 4,3). Beste hiru taldeek, berriz, gora egin dute (6 hilabetera arte, 1-2 urte bitartean eta 3 urte eta gehiago, +% 0,9, +% 0,6 eta +% 0,9, hurrenez hurren).

Erregistratutako langabezia

	12.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko irailarekiko)	Δ % urte artekoa (2024ko abenduarekiko)
GUZTIRA	20.876	-0,2	-0,9
Emakumeak	11.744	-1,9	0,0
Gizonak	9.132	2,0	-2,0
16-24 urte bitartekoak	1.858	0,7	0,1
25-34 urte bitartekoak	3.395	-2,6	-1,2
35-44 urte bitartekoak	3.943	1,5	-2,4
45 urte eta gehiagokoak	11.680	-0,3	-0,5
6 hilabetera arte	6.913	0,9	0,8
6 hilabete eta 1 urte bitartean	2.928	-3,4	2,2
Urte 1 eta 2 urte bitartean	3.030	0,6	-5,7
2 eta 3 urte bitartean	1.760	-4,3	-3,0
3 urte baino gehiago	6.245	0,9	-1,1
Ez du langabezia-prestaziorik kobratzen	15.922	1,6	4,5
Prestazioak kobratzen ditu	4.954	-5,7	-15,0

Iturria: SEPE eta Lanbide

Erregistratutako langabeziaren beheranzko joera bera dute erreferentziazko hiriburuek. Valentzian (-% 10,2), Sevillan (-% 8,0), Zaragozan (-% 4,0) eta Madrilan (-% 2,4) izandako jaitsierak nabarmentzen dira, baina Bartzelonan (-% 0,2) ia ez da atzera egin. Batez beste, Estatuko hiriburuetan (G-5) erregistratutako langabeziaren jaitsiera % 5,0koa da, eta ratio horrek boskoiztu egiten du (-% 1,1) EAEko hiriburuei atxikitakoa (G-3). Iruña da langabezia murriztu duen euskal hiriburu bakarra (-% 4,4); Donostian (+% 0,5) eta Gasteizen (+% 0,5), berriz, gorakada txikia izan du.

Benchmarkinga. Erregistratutako langabezia

	12.2025	Hiruhileko arteko Δ % (2025eko irailarekiko)	Δ % urte artekoa (2024ko abenduarekiko)
Madril	132.070	-0,6	-2,4
Bartzelona	63.355	1,3	-0,2
Valentzia	41.637	-2,4	-10,2
Sevilla	51.598	-4,0	-8,0
Zaragoza	27.912	0,4	-4,0
G-5en batezbestekoa	--	-1,0	-5,0
BILBO	20.876	-0,2	-0,9
Gasteiz	14.127	-0,2	0,5
Donostia	6.513	1,1	0,5
Pamplona-Iruña	9.680	1,0	-4,4
G-3ren batezbestekoa	--	0,6	-1,1
G-9ren batezbestekoa	--	-0,4	-3,2

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruña G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: SEPE

Biztanleria aktiboa

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera (EIN), laugarren hiruhilekoan, Bilbon bizi den biztanleria aktiboa 178,1 mila pertsonakoa da; beraz, urte arteko jaitsiera handia izan du (-% 2,2, urte arteko tasan). Halaber, biztanleria landuna jaitsi egin da (-% 2,7), eta biztanleria langabea, igo (+% 1,4).

Urteko datuei dagokienez (lau hiruhilekoen batez bestekoa), balantzea hobea da: biztanleria aktiboak (+% 5,0) eta landunak (+% 5,8) gora egin dute, eta langabeak behera egin du (-% 2,6). Afiliatutako biztanleriaren hazkundearekin (Gizarte Segurantza) eta erregistratutako langabeziaren jaitsierarekin (SEPE) bat datozen emaitzak dira. Gainera, enplegu-tasak gora egin du (54,0; +2,3 ehuneko puntu) eta langabezia-tasak behera egin du (% 9,23; -0,7 ehuneko puntu), gizonen mesedetan.

Biztanleria landunak (+% 5,8) eta enplegu-tasak (+2,3 ehuneko puntu) gora egin dute

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea



Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabea eta adierazleak (enplegu- eta langabezia-tasa)

	IV.2025	Δ %		urteko batezbestekoa		Δ % (urte artekoa)
		Hiruhileko artekoa	Urte artean	2024	2025	
Biztanleria aktiboa (milaka)	178,1	1,3	-2,2	175,1	183,8	5,0
Biztanleria okupatua (milaka)	156,6	-4,9	-2,7	157,6	166,8	5,8
Nekazaritza	--	--	--	0,5	--	--
Industria	20,7	20,3	19,0	16,1	17,7	9,8
Eraikuntza	7,6	-7,3	-32,7	8,9	10,1	13,2
Zerbitzuak	128,2	-8,0	-3,0	132,6	139,1	4,9
Biztanleria langabetua (milaka)	21,5	92,0	1,4	17,4	17,0	-2,6
Enplegu-tasa (%)	51,94	-2,8	0,8	51,67	54,00	2,3
Emakumeak	48,78	-2,0	-1,1	49,14	51,65	2,5
Gizonak	55,33	-3,8	2,7	54,46	56,58	2,1
Langabezia-tasa (%)	12,08	5,7	0,4	9,95	9,23	-0,7
Emakumeak	9,82	0,5	-2,3	8,33	8,76	0,4
Gizonak	14,13	10,8	3,0	11,42	9,66	-1,8

Enplegu-tasarako eta langabezia-tasarako aldaguntza-tasa ehuneko puntuetan.
Iturria: Biztanleria aktiboaren inkesta, EIN (2021eko oinarria)

MERKATARITZA

Laugarren hiruhilekoan, merkataritza-sektoreko salmentek gora egiten jarraitu dute (+% 1,9, prezio arruntak) ibilgailuen salmenta eta konponketako (+% 4,5) eta txikizkako merkataritzako (+% 3,6) segmentuen portaera onaren ondorioz, eta emaitza ez da ia aldatu handizkako merkataritzaren kasuan (+% 0,3).

Urtetik urtera zerbitzuen sektoreko salmentek gora egin dute (+% 1,9 eta +% 0,4, prezio arruntak eta konstanteak)

Jardueraren emaitza, prezio konstanteetan, laua da (-% 0,1), eta alde handia dago (-2,0 ehuneko puntu) uneko prezioen jardueraren hazkundearekiko, prezioen igoeraren eragina jasotzen baitu. Gainera, nabarmentzekoa da automobilen salmenta eta konponketako segmentuaren dinamismoa (+% 3,0) baita txikizkako merkataritzarena (+% 2,5) ere, haren kapilaritate eta bolumenagatik; izan ere, handizkako merkataritzaren jaitsiera konpentsatzen du (-% 2,2).

Laugarren hiruhilekoa dinamikotasun txikienekoa izan den arren, 2025eko balantzea positiboa da; izan ere, salmenten urte arteko hazkundearen ibilbideari eusten dio (+% 1,9 eta +% 0,4, prezio arruntak eta konstanteak), txikizkako merkataritzaren (+% 4,0 eta +% 2,8) eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren (+% 6,0 eta +% 5,3) segmentuek bultzatuta; izan ere, enpleguaren sendotasunean oinarrituta, ingurunearen ziurgabetasunari aurre egiten diote, eta hori erabakigarria da familien gastu-ahalmenean. Handizkako merkataritza da atzera egin duen bakarra prezio konstanteetan (-% 1,7).

Sektoreko enpleguak gora egiten jarraitzen du (+% 1,2), eta bost urtez jarraian hobetu da, pandemiaren ondorioz 2020an izandako jaitsieraren ondoren. Hala ere, eta logikoa denez, hazkunde-profila moteldu egin da (+% 2,7, +% 1,9, +% 1,5 eta +% 1,2, 2022tik 2025era).

Sektoreko enpleguak hobetzen jarraitzen du (+% 1,2)

Merkataritza

	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	III.2025	IV.2025	2025	III.2025	IV.2025	2025
Merkataritza-salmentak, guztira	3,1	1,9	1,9	2,2	-0,1	0,4
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	18,2	4,5	6,0	15,9	3,0	5,3
Handizkako merkataritza	-0,1	0,3	0,0	-0,7	-2,2	-1,7
Txikizkako merkataritza *	4,6	3,6	4,0	3,5	2,5	2,8
Elikadura	4,7	3,8	4,0	3,7	2,6	2,9
Gainerako produktuak	4,5	3,3	4,1	3,2	2,4	2,7
Landunen indizea	2,0	1,6	1,2	--	--	--

*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria.
Iturria: Eustat

Bizkaiko saltoki handietako salmentak hazi egin ziren laugarren hiruhilekoan (+% 4,9 eta +% 1,9, prezio arruntak eta konstanteak, urte arteko tasan), eta urteko bigarren emaitzarik onena izan zuten, bigarren hiruhilekoko hazkundeak gaitzuta (+% 5,8 eta +% 3,1, prezio arruntak eta konstanteak). Gainera, dinamismo hori bi jarduera-adar handiek partekatzen dute, eta gehikuntza handiak izan dituzte elikaduraren sektoreko salmentek (+% 5,2 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak) eta gainerako produktuek (+% 4,2 eta +% 2,7, prezio arruntak eta konstanteak).

Laugarren hiruhilekoa urteko bigarren dinamikoena izan zen saltoki handietan

2025eko balantzea oso positiboa da, eta jardueraren hobekuntza-profila mantendu da (+% 4,2 eta +% 1,5, prezio arruntak eta konstanteak), 2024koaren antzekoa (+% 4,3 eta +% 0,7, prezio arruntak eta prezio konstanteak). Gainera, balantze hori bi jarduera-segmentuen jarduera positibotik eraikitzen da, nahiz eta Gainerako produktuen dinamismoa (+% 4,0 eta +% 2,5, prezio arruntak eta konstanteak) Elikadurarena (+% 4,4 eta +% 0,9) baino handiagoa izan.

Zerbitzuek salmentak hobetu zituzten 2025ean (% 4,2 eta +% 1,5 prezio arruntetan eta konstanteetan)

Azkenik, saltoki handietako enplegua laugarren hiruhilekoan (+% 0,3) ekitaldiko txikiena izan da (+% 0,4, +% 2,0 eta +% 1,8). Oro har, azalera handietako enplegua % 1,1 hazi zen (urte arteko tasa), eta emaitza hori bat dator 2024an lortutakoarekin (+% 1,1), eta bi kasuetan, aurreko hiru urteetan baino dinamika txikiagoa izan zuen (+% 5,3, +% 3,4 eta +% 2,7, hurrenez hurren, 2021, 2022 eta 2023rako).

Eta enpleguak gora egin zuen (+% 1,1)

Merkataritzagune handiak

Urte arteko aldakuntza-tasa, %

	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	III.25	IV.25	2025	III.25	IV.25	2025
Salmentak	3,5	4,9	4,2	1,0	1,9	1,5
Elikadura	3,8	5,2	4,4	0,6	1,5	0,9
Gainerako produktuak	3,0	4,2	4,0	1,5	2,7	2,5
Landunen indizea	1,8	0,3	1,1	--	--	--

Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. 2021eko oinarria. Hiruhilekoko datua (hileko datuen batezbestekoa). Uneko urteko behin-behineko datuak
Iturria: Eustat

2025eko laugarren hiruhilekoan 4.119 ibilgailu berri matrikulatu dira Bizkaian (-% 2,4, urte arteko tasan eta 101 ibilgailu gutxiago). Galera hori enpresa-ibilgailuen eta bestelakoen segmentuaren atzerakadaren ondorio da (-% 23,9), eta hori ezin da konpentsatu partikularren segmentuan izandako gorakadarekin (+% 9,8). Hala ere, hiruhilekoen arteko saldoa positiboa da, matrikulazioak hobera egin baitu (+% 5,8), bai partikularrentzako salmentetatik (+% 3,4), bai enpresari eta beste batzuei egindako salmentetatik (+% 12,3).

Ibilgailu berrien salmenta % 12,4 handitu zen 2025ean

Ibilgailu berrien salmentak % 12,4 egin du gora 2025ean, 15.700 unitaterekin, partikularren segmentuak bultzatuta (+% 17,6), eta erabakigarriak izan dira guztizkoan (% 71,2). Hala ere, 2015 eta 2019 bitartean erregistratutakoak (19.081, 19.509, 20.013, 20.927 eta 20.268) eta 2007ko maximo historikoa¹⁶ (33.033 ibilgailu berri) baino askoz txikiagoak dira.

Ibilgailuen matrikulazioa

	2024	2025	Δ %	IV. 2025	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artean
Guztira	13.972	15.700	12,4	4.119	5,8	-2,4
Partikularrak	9.503	11.176	17,6	2.957	3,4	9,8
Enpresak eta bestelakoak	4.469	4.524	1,2	1.162	12,3	-23,9

Bizkaiko datuak.
Iturria: Anfac

¹⁶DGTren urteko txostena, 2007.

Abenduan (urteko laugarren hiruhilekoaren erreferentzia gisa), Bilboko merkataritza-sektoreko afiliazioa 20.667 pertsonakoa da (abenduko datua), hau da, urte arteko % 0,9ko jaitsiera (189 afiliatu gutxiago). Hala ere, hiruhileko arteko hobekuntza nabarmena izan du (+% 2,7, hiruhileko arteko tasa) eta 543 afiliazio ditu.

Bilboko merkataritza-sektoreari atxikitako afiliazioaren bilakaera desberdina izan da urte artean (-% 0,9) eta hiruhileko artean (+% 2,7)

Halaber, urte arteko emaitza hori, abendua ixtean, negatiboa izan da kontuan hartutako hiru jardueretan (-% 2,2, -% 0,5 eta -% 2,0 handizkako merkataritzan, txikizkako merkataritzan eta ibilgailuen salmenta eta konponketan, hurrenez hurren), eta hiruhileko arteko balantzea ere positiboa izan da (+% 0,3, +% 3,5 eta +% 1,1, hurrenez hurren).

Abendua ixtean, 2.355 enpresak zuten enplegu afiliatua. Urtetik urterako galera % 1,3koa izan zen. Hala, jarduera negatiboa berresten da, hiru jarduera-segmentuek partekatzen baitute jaitsiera. Batez besteko enplegua zertxobait hobetu da (6,7, +0,1 pertsona), eta enplegu autonomoaren ratioak beherantz jarraitzen du (% 24,1, -0,8 ehuneko puntu).

Merkataritza-enpresen kopuruaren urte arteko jaitsiera

Merkataritza-sektorearen adierazleak. Bilbo

	9.2025	12.2025	12.2025; Δ %		2025	
			hiruhileko artean	urte artean	Kop.	Δ % urtekoa
Afiliatuak¹	20.124	20.667	2,7	-0,9	20.337	1,2
Handizkako merkataritza	4.124	4.136	0,3	-2,2	4.141	-2,8
Txikizkako merkataritza	14.898	15.417	3,5	-0,5	15.093	2,6
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.102	1.114	1,1	-2,0	1.103	-3,3
Enpresak²	2.339	2.355	0,7	-1,3	2.349	-0,6
Handizkako merkataritza	565	569	0,7	-0,5	568	-2,0
Txikizkako merkataritza	1.626	1.632	0,4	-1,3	1.628	0,4
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	148	154	4,1	-4,3	152	-6,0
Soldatapeko batez besteko enplegua³	6,5	6,7	0,2	0,1	6,5	0,2
Enplegu autonomoaren %	24,7	24,1	-0,6 ehuneko puntu	-0,8 ehuneko puntu	24,7	-1,2

1. Guztizko enplegua (araubide guztiak). 2. Kotizazio-kontuak, araubide orokorreko afiliatzen euskarria. 3. Araubide Orokorrean afiliatutakoak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.
Iturria: GSDO

2025eko jardueraren balantzea¹⁷ hobea da abenduko itxierako datuek erakusten dutena baino. Sektorereko batez besteko afiliazioa 20.337 pertsonakoa da, eta urte arteko hazkunde nabarmena izan du (+% 1,2), txikizkako merkataritzak bultzatuta (+% 2,6). Aldiz, ibilgailuen salmenta eta konponketak (-% 3,3) eta handizkako segmentuak (-% 2,8) behera egin dute.

Enpresa-sarea 2.349 enpresak osatzen dute, eta zifra horrek behera egin du 2024tik (-% 0,6). Handizkako merkataritzako (+% 2,0) eta ibilgailuen salmenta eta konponketako (-% 6,0) enpresen galera nabarmentzen da; txikizkako sareak, berriz, gora egin du pixka bat (+% 0,4), eta sektoreko enpresen bi herenek baino gehiagok (% 69,3) ekarpena sendotu dute.

Azkenik, soldatapeko batez besteko enpleguak hobera egiten jarraitzen du (6,5 pertsona), eta enplegu autonomoaren pisuak behera egin du (% 24,7, -1,2 ehuneko puntu). Adierazle horiek erakusten dute sektore-sarearen eraldaketa progresiboa, enpresa-formatuaren presentzia handiagoarekin, "*familia-negozio tradizionalaren*" kaltetan.

¹⁷ Hiruhileko bakoitzaren itxierako hileko emaitzen batez besteko gisa (martxoa, ekaina, iraila eta abendua, hurrenez hurren).

TURISMOA


Laugarren hiruhilekoan, 290.455 bidaiari hartu zituen hiriko hotel-sareak, eta 551.956 ostatu-gau izan zituen. Jardueraren bi aldagai adierazgarrietan urte arteko hazkunde garrantzitsua izan zela erakutsiz (+% 9,3 eta +% 5,2). Halaber, adierazi behar da hileko portaera hobetu egin zela bi aldagaietan eta hiru hilabeteetan, eta urrian izandako gorakada nabarmentzen da.

Bidaiarien (+% 9,3) eta ostatu-gauen (+% 5,2) kopuruak gora egin du

Hiruhilekoko balantzean ikus daitekeenez, bidaiarien sarreraren gehikuntza estatuko jatorriko bidaiarien dinamismoak eragin du (urtetik urterako +% 6,3), baina, batez ere, atzerrikoenak (+% 13,2), laugarren hiruhilekoan hartutako bidaiari guztien % 44,2 baitira. Era berean, atzerriko segmentuak gualdi guztien % 49,6 ekarri ditu, eta horien urte arteko hazkundeak (+% 12,5) estatuko segmentuak izandako jaitsiera konpentsatzen du (-% 1,1). Bi aldagaien bilakaeraren ondorioz, Bilboko hotel-establezimenduetako batez besteko egonaldia 1,90 egunekoa izan da urteko laugarren hiruhilekoan, eta hori zertxobait handiagoa da atzerriko segmentuan Estatukoan baino (2,13 eta 1,72, hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da atzerriko jatorria gehitu egin dela, bidaiari eta gualdietan (+% 13,2 + % 12,5)

Bidaiariak eta ostatu-gauak Bilboko hotel-establezimenduetan



Iturria: Eustat

Emitza positibo horiek hiruhileko bakoitzean¹⁸ izandako dinamismo handia ezaugarri duen urteko balantzeari laguntzen diote. Hala, Bilbok 2,4 milioi ostatu-gau izan ditu 2025ean, eta 1,2 milioi bidaiari baino gehiago, % 7,8ko eta % 9,3ko urte arteko hazkundearekin, hurrenez hurren. Horrenbestez, 2024an etendako hazkunde-bidea berreskuratu du (-% 1,0 eta -% 2,0 gualdietan eta bidaiarietan, hurrenez hurren).

2025ean, Bilbok 1,2 milioi bidaiari eta 2,4 milioi ostatu-gau baino gehiago izan ditu

Emitza horri lortzen bereziki lagundu du atzerriko segmentuari lotutako jardueraren hazkundeak (+% 10,9 eta +% 11,2, gualdietan eta bidaiarietan), nabarmen gainditzen baitu Estatuko merkatuaren hobekuntza (+% 3,9 eta +% 7,2). Horrela, gualdien eta bidaiarien % 56,8 eta % 52,6 atzerriko segmentuari dagozkio, 2,09 eguneko batez besteko egonaldiarekin, eta adierazle horrek batez besteko globalaren (1,93 egun) goranzko joera du, Estatuko segmentuan zertxobait txikiagoa baita (1,76 egun).

¹⁸ Lehenengo hiruhilekotik hirugarrenera, % 6,6, % 13,4 eta % 5,2 gehitu dira gualdiak, % 7,2, % 13,4 eta % 9,3, hurrenez hurren. Kontuan izan behar da bigarren hiruhilekoak Aste Santuaren eragina jasotzen duela (2025eko apirilaren 13tik 20ra), 2024an (martxoaren 24tik 31ra) lehen hiruhilekoan sartu zena.

Turismoa


	2024	2025	Δ % urte artean	IV.2025	Δ % urte artean
Ostatu-gauak	2.211.004	2.382.586	7,8	551.956	5,2
3 izar eta gehiagoko hotelak	1.671.094	1.779.007	6,5	407.865	5,8
3 izar baino gutxiagoko hotelak eta ostatuak	539.910	603.579	11,8	144.091	3,6
Estatukoak	991.717	1.030.099	3,9	277.957	-1,1
Atzerritarrak	1.219.287	1.352.487	10,9	273.999	12,5
Bidaiaariak	1.128.666	1.233.349	9,3	290.455	9,3
Estatukoak	545.843	585.007	7,2	162.026	6,3
Atzerritarrak	582.823	648.342	11,2	128.429	13,2
Egonaldia, batez beste	1,96	1,93	--	1,90	--

Batez besteko egonaldia: gauak/bidaiaariak (egunak). Ehuneko puntuen aldakuntza.
Iturria: Eustat

Ostatu-gauen hileko bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke sistematikoki hobea izan dela hil bakoitzean, 2024arekin alderatuta. Gainera, atzerriko segmentuaren portaera bereziki dinamikoa izan zen hilabete guztietan, eta bereziki apirilean, maiatzean eta abenduan, estatuko segmentuaren ibilbide irekiagoarekin alderatuta, urte arteko bi hobekuntza-une nagusirekin (apirila eta ekaina) eta hiru atzerakadarekin (abuztua, azaroa eta abendua). Beraz, hiribilduko hotel-jardueraren susperraldia 2025ean hileroko eraikitzen da, bi merkatuetatik, jatorriaren arabera (estatukoa eta atzerrikoa).


Gaualdien hileroko
hobekuntza-profila

Bilboko hotel gauak, hilabeteko bilakaera



Iturria: Eustat

Gaualdiak Bilboko hotel-establezimenduetan, merkatu-segmentuaren eta hileko bilakaeraren arabera (urte arteko aldakuntza-tasa; %)



Iturria: Eustat

Erreferentziako hiriburuetan, partekatu egin dute gualdien urte arteko hobekuntza laugarren hiruhilekoan. Horien artean, Valentzia nabarmentzen da (+% 10,5), eta salbuespen bakarra Zaragoza da (-% 4,8). Guztiak kontuan hartuta, baterako jarduera positiboa izan dute (G5, +% 3,8). Bestalde, EAEko hiriburuak balantze bera dute (G3, +% 3,2), eta nabarmentzekoa da Iruñeak urteko azken hiruhilekoan izandako hazkundera (+% 6,3).

Laugarren hiruhilekoko jarduera positiboa izan arren, 2025ean ostatu-gauak gora egin dute Madrilan (+% 2,6) eta Sevillan (+% 1,3), eta atzera egin dute Bartzelonan, Valentzian eta Zaragozan, bilakaera negatibo samarrarekin (G-5, -% 0,1). Halaber, Donostiak behera egin du (-% 0,5), eta Gasteiz (+% 0,8) eta Iruñeak (+% 4,0) hobera egin dute, baterako saldoa (G-3) positiboa izanik (+% 1,4). Adierazi behar da, panel honetan, Bilbon erregistratu dela gualdien urte arteko hazkunderik handiena 2025ean.

Zortzi hiriburuak dagokien, Bilbon izan da hotel-gauen urte arteko hazkunderik handiena

Benchmarkinga. Hoteletako ostatu-gauak

	2024	2025	Δ % urte artean	IV.2025	Δ % urte artean
Madril	20.918.178	21.469.552	2,6	5.632.790	4,6
Bartzelona	21.820.833	21.691.390	-0,6	5.142.340	3,6
Valentzia	5.008.763	4.941.475	-1,3	1.164.775	10,5
Sevilla	6.538.863	6.623.033	1,3	1.710.679	5,0
Zaragoza	2.061.286	2.007.491	-2,6	508.576	-4,8
G-5en batezbestekoa (hiriak)	--	--	-0,1	--	3,8
BILBO	2.211.004	2.382.586	7,8	551.956	5,2
Gasteiz	872.929	880.219	0,8	211.969	3,1
Donostia	2.132.783	2.122.612	-0,5	477.148	0,0
Pamplona-Iruñea	670.351	696.884	4,0	173.898	6,3
G-3ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	1,4	--	3,2
G-9ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	1,3	--	3,7

Gualdien hobekuntza nahiko orokorra izan da laugarren hiruhilekoan

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIA

GARRAIOA

Aireko garraioa

Urria eta abendua bitartean, Loiuko aireportuaren jardura % 7,6 igo da urte batetik bestera, 1.720.494 bidaiarira arte, eta 2024ko aldi berean baino 120.933 bidaiari gehiago izan ditu. Emaiza hori segmentu nazionalaren (+% 3,3) eta, batez ere, nazioartekoaren (+% 13,5) portaera onari zor zaio; izan ere, hegaldi komertzialetako bidaiarien % 43,9 dira. Era berean, aireportutik egindako eragiketek¹⁹ % 4,3 egin dute gora urte batetik bestera (551 eragiketa gehiago), eta 13.227 eragiketa egin dira.

Laugarren hiruhilekoan gora egin du Loiuko aireportuko bidaiari kopuruak (+% 7,6)

2025. urtea oso mesedegarria izan da Bizkaiko aireporturako. Izan ere, garraiatutako bidaiariak (+% 4,2) eta kudeatutako eragiketak (+% 3,7) nabarmen igo dira, eta eragiketa bakoitzeko 130 bidaiari izan dira batez beste. Garrantzitsua da azpimarratzea ekitaldiaren arrakastaren zati handi bat nazioarteko merkatuak izandako hazkundeak eragin duela (+% 10,6), eta horrek konpentsatu egiten duela segmentu nazionalaren jaitsiera txikia (-% 0,5). Horrela, pixkanaka, bi merkaturen arteko banaketak berdintzeko joera du (% 55,3 eta % 44,7, estatuko eta atzerriko merkaturako 2025ean, eta % 57,9 eta % 42,1, aldiz, 2024an).


2025ean, Loiuk 7 milioi bidaiariko muga gainditu du

Aireko garraioa

	2024	2025	Δ %	IV. 2025p	Δ % urte artean
Bidaiariak (kop.)	6.777.645	7.062.681	4,2	1.720.494	7,6
Hegaldi komertzialak	6.766.068	7.051.157	4,2	1.717.183	7,6
Espainiakoak	3.915.235	3.896.749	-0,5	962.557	3,3
Nazioartekoak	2.850.833	3.154.408	10,6	754.626	13,5
Hegaldiak (kop.)	52.539	54.468	3,7	13.227	4,3

b: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

Bidaiariak Bilboko aireportuan, hileko bilakaera




b: behin-behinekoa.
Iturria: Aena

¹⁹ 2025eko laugarren hiruhilekoan, Loiuko Aireportuak 2026rako helmuga berriak hartuko dituela iragarri du, eta, aurreikuspenen arabera, bidaiarien eta eragiketen kopuruak gora egingo du datorren urterako.

Loiuko bidaiarien trafikoaren hileroko bilakaerak erakusten du, urtarrilean izan ezik, 2025eko hilabete guztietan gainditu direla 2024ko erregistroak; zehazki, maiatzetik urrira bitartean operatibaren erdia baino zertxobait gehiago biltzen du (% 58, 2024an eta 2025ean). Gainera, merkatuen arabera hileko profila desberdina da, nazioarteko segmentuan hileko irabazi jarraitua baitu; segmentu nazionalak, berriz, bilakaera aldakorragoa du, zazpi hilabeteko atzeraldiarekin eta bost hilabeteko irabaziarekin (martxoa, maiatza, ekaina, urria eta azaroa).

Bidaiariak Bilboko aireportuan, merkatu-segmentuaren eta hileko bilakaeraren arabera (urte arteko aldakuntza-tasa; %)



Datuak behin-behinekoak dira
Iturria: Aena

Laugarren hiruhilekoaren eta urte osoaren balantze positiboa erreferentziazko aireportuekin partekatzen da. Zehazki, 2025eko emaitza orokorrean, Valentzia (+% 9,6), Sevillan (+% 5,6) eta Bartzelonan (+% 4,4) erregistratutako bidaiari-gehikuntzak nabarmentzen dira. Zehazki, Estatuko hiriburuetan (G-5) batera % 4,9ko hazkundea izan dute. EAEko hiriburuaren artean, Gasteiz nabarmentzen da (+% 17,8), Donostiaren atzerakadaren aurrean (-% 0,3). Oro har, hiru hiriburuaren multzoak (G-3) % 7,8ko hazkunde bateratua izan du.

Benchmarkinga. Bidaiariak aireportuetan

	2024	2025	Δ %	IV. 2025	Δ % urte artean
Madril	66.196.984	68.179.054	3,0	17.166.438	4,5
Bartzelona	55.034.955	57.483.036	4,4	13.807.272	5,5
Valentzia	10.811.672	11.847.527	9,6	2.857.837	14,3
Sevilla	9.175.072	9.686.487	5,6	2.530.296	8,8
Zaragoza	693.995	707.493	1,9	165.359	0,2
G-5en batezbestekoa (hiriak)	--	--	4,9	--	6,7
BILBO	6.777.267	7.062.681	4,2	1.720.494	7,6
Gasteiz	263.328	307.163	16,4	81.369	33,4
Donostia	486.494	472.666	-2,8	107.509	0,3
Pamplona-Iruñea	220.423	233.398	5,9	61.354	14,7
G-3ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	7,8	--	16,2
G-9ren batezbestekoa (hiriak)	--	--	5,8	--	9,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Gasteiz, Donostia eta Iruñea G-9: G-5, G-3 eta Bilbo.
Iturria: Eustat eta EIN

Itsas garraioa

Urteko laugarren hiruhilekoan, Bilboko Portuaren bidez kudeatutako salgaiak % 2,5eko urte arteko hazkundea izan du, 8.309 mila tonaraino (2024an baino +205,7 mila tona gehiago). Urte arteko bilakaera positiboa izan duen hiruhileko bakarra da, eta solteko gai likidoen jardueraren hazkundea islatzen du (+% 9,9; +484,5 mila tona gehiago), solteko gai solidoen (-% 9,4; -104,3 mila tona), salgai orokorren (-% 6,9; -142,7 mila tona) eta bestelakoen (-% 86,0; -31,7 mila tona) jaitsierak konpentsatzen duena. Era berean, edukiontzien kopurua (-% 6,6) eta edukiontzietan garraiatutako salgaiak (-% 3,1) jaitsi egin dira.

Bilboko Portuaren jarduerak gora egin du (+% 2,5), hiruhileko "positibo" bakarra


2025ean, oro har, 32 milioitik gorako tona-mugimenduarekin itxi du urtea Portuak²⁰, hau da, 2,4 milioiko jaitsierarekin 2024arekin alderatuta (-% 7,1), "*Petronorren geldialdi teknikoak eraginda, maiatzetik uztaile bitartean*". Izan ere, eragin hori agerian geratzen da batez ere negatiboa izan den ibilbide batean, eta urteko bigarren hiruhilekoan izandako jaitsiera nabarmena nabarmen izan da (-% 24,2); horri, neurri txikiagoan bada ere, lehen eta hirugarren hiruhilekoetakoak gehitzen zaizkio (-% 3,9 eta -% 0,2). Horrela, laugarren hiruhilekoko hobekuntza hori urteko ibilbidean lausotu egiten da.

Urteko balantzeak % 7,1eko jaitsiera izan du, bigarren hiruhilekoko jardunak eraginda

Portuko agintaritzak adierazi duenez, "*geldialdi hori egin gabe, trafikoaren jaitsiera % 0,5ekoa izango litzateke, Estatuko portu-sistemaren % 0,2ko jaitsierarekin batera*". Halaber, tentsio geopolitikoek nazioarteko merkataritza-fluxuetan duten eragina aipatu du, esportazio- eta inportazio-jarduera murriztu baitute. Bi arrazoiek azaltzen dute ia jarduera-lerro guztiek atzera egin izana, eta nabarmentzekoa da solteko gai likidoen (-% 9,5), salgai orokorren (-% 4,2) eta beste batzuen (-% 84,1) urte arteko emaitza negatiboa, solteko gai solidoen (+% 1,3) igoeraren aldean. Azkenik, eta ildo beretik, itsasontzien (-% 5,6) eta edukiontzien (-% 7,6) kopuruak behera egin du, baita edukiontzietan mugitutako salgaienak ere (-% 6,0).

...jarduerak batez ere atzera egin duen ekitaldi batean

Salgaien itsas garraioa



Iturria: Estatuko portuak

²⁰ <https://www.bilbaoport.eus/noticias>; 2026ko otsailak 26.

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina

Urteko azken hiruhilekoan, Bizkaiko ekonomiak hazkunde-erritmoari eutsi zion (+% 2,4 urte artean), eta urteko sekuentzia sendotu egin zen, hiruhilekotan % 2tik gora mantenduz. Horrela, Lurraldeko BPGaren hazkundera % 2,3koa izan da 2025ean, emaitza oso positiboa, ekitaldia zer ziurgabetasunetan garatu den ikusita. Baina, gainera, hirurteko zail eta oso aldakor batean kokatzen da, neurri handi batean egitura ekonomiko-produktiboarekiko exogenoak diren faktoreek baldintzatuta (gatazka belikoak, tentsio geopolitikoak eta ziurgabetasun juridikoa).


2025ean, Bizkaiko BPGd-a
% 2,3 handitu zen

Biurtekoaren hiruhilekoen arteko profilak hazkunde txikia izan du 2024ko bigarren hiruhilekotik (ia) 2025eko hirugarren hiruhilekora arte, azken zortzi hiruhilekoetako erregistrarik onena lortu baita, urteko ziurgabetasuna gorabehera. Sekuentzia horrek adierazten du 2026rako hazkuntza-tarte posiblea –kasurik onenean– ez dela 2025eko mailara iritsiko, indarrean dauden aurreikuspenak ikusita.

Ekonomiarekin batera, laugarren hiruhilekoan erregistratutako hobekuntza enpleguaren hazkundera islatzen da (urte arteko +% 1,6) eta 504.593 lanpostutan kokatzen da lanaldi osoko baliokidetzan, hau da, hirugarren hiruhilekoz jarraian milioi erdi lanpostuko langa gainditzen du, lurraldeko enplegua sendotuz. Emaitza horiek urteko datu orokorra bultzatzen dute, eta maximo historiko berri batera iritsi da: 501.586 lanpostukoa da (+% 1,6), lehen aldiz (urteko batez bestekoa) milioi erdi lanposturen muga gaindituz.

501.586 LOB
lanposturekin

Bizkaiko BPGd-a



I turria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhilekoko kontuak). Urtarokotasun- eta egutegi-efektuetatik zuzendutako datuak, bolumen kateatuko indizean eta 2022ko oinarrian.

Industria

Laugarren hiruhilekoan, Bizkaiko industria-produkzioak urte arteko % 2,3ko hazkundera izan du, batez ere manufaktura-industriak (+% 2,2), energiak, gasak eta lurrunak (+% 4,6) eta urak (+% 1,6) lagunduta. Horiek, oro har, konpentsatzen dute erauzketa-industrietan izandako jaitsiera nabarmena (-% 10,0). Baina hirugarren eta laugarren hiruhilekoen emaitza positiboak ez du lehen seiuhileko negatiboa konpentsatzen. 2025. urtean hazkunde txikia izan zen (+% 0,1). Soilik energiak, gasak eta lurrunak (+% 3,8) eta uraren egonkortasunak (+0,1) izan zuten emaitza positiboa; erauzketa-industriak (-% 3,2) eta manufaktura-industriak (-% 0,5), aldiz, jaitsiera izan zuten, nahiz eta susperraldirako joera erakutsi bigarren seiuhileko hobea izanda.

2025ean industria-produkzioa gelditu egin da (+% 0,1)

Industria

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	I.2025	II.2025	III.2025	IV.2025	2024	2025
Produkzio-indizea	-0,7	-1,8	0,9	2,3	-0,6	0,1
Manufakturen industria	-2,5	-2,1	0,9	2,2	0,0	-0,5
Erauzketa-industriak	-1,4	2,8	-4,7	-10,0	-17,7	-3,2
Energia, gasa eta lurruna	6,0	2,4	1,5	4,6	-4,5	3,8
Ura	3,2	-4,6	0,6	1,6	0,9	0,1

Bizkaiko datuak, egutegiaren ondorioak zuzenduta. 2021eko oinarria. Erreferentzia-aldiko agregazio-indizearen urte arteko aldakuntza.
Iturria: Eustat

Merkatu-zerbitzua

Laugarren hiruhilekoan, zerbitzuen salmentek hazkunde handia izan dute (+% 4,4 eta +% 1,4, prezio arruntak eta konstanteak). Hala, 2025eko balantzea ere positiboa da (+% 4,9 eta +% 2,3), lehen seiuhilekoan izandako emaitza onean (bigarren seiuhilekoaren aldean hobea) oinarrituta, eta 2021ean hasitako hobekuntza-bideari eusten dio. Nabarmentzekoa da garraio- eta biltegiaritze-jardueraren urteko dinamismoa (+% 7,3 eta +% 4,5) eta jarduera profesionalak, zientifiko-teknikoak (+% 6,8 eta +% 4,5); sektoreko hazkundera gaintitzen baitute (prezio arruntak eta konstanteak). Azkenik, enplegua % 0,7 hazi da, 2024ko magnitude berean.

Zerbitzuen sektoreko salmentek % 4,9ko eta % 2,3ko igoera izan dute 2025ean (prezio arruntak eta konstanteak)

Merkatu-zerbitzua

	Urte arteko aldakuntza-tasa, %					
	(Prezio arruntak)			(Prezio konstanteak)		
	III.2025	IV.2025	2025	III.2025	IV.2025	2025
Salmentak, guztira	6,2	4,4	4,9	3,6	1,4	2,3
Garraioa - biltegiaritzea	11,5	3,7	7,3	7,9	0,0	4,5
Ostalaritza	5,4	5,2	5,2	2,6	1,8	2,2
Informazioa - komunikazioak	0,2	-0,9	-0,1	-2,2	-3,7	-2,9
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	7,1	8,6	6,8	4,8	6,4	4,5
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	3,3	3,3	2,9	1,1	1,0	0,0
Landunen indizea	0,5	1,1	0,7	--	--	

*Indize orokorra, zerbitzugunerik gabe Bizkaiko datuak, egutegi ondorioetatik zuzenduta, eta enplegu-datuak, urtaroko efektua kenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak. 2021eko oinarria.
Iturria: Eustat

Kanpo-merkataritza

2025eko datuen arabera, Bizkaiak 2024an baino gutxiago esportatu (6.587,5 mila tona; -% 11,2) eta inportatu (17.005,5 mila tona; -% 5,2) zuen; halaber, esportatutakoaren (10.745,0 milioi euro; -% 9,3) eta inportatutakoaren (14.154,7 milioi euro; -% 8,6) diru-balioa murriztu zen. Beraz, Bizkaiko kanpo-jarduerak 2025ean balantze negatiboa du, eta komeni da balantze hori jarduera-motaren arabera aztertzea.

Kanpo-merkataritzak behera egin du urte osoan

Esportazio ez-energetikoak (manufaktura-industria) behera egin du bolumenean eta balioan (-% 6,5 eta -% 4,6); inportazioak, berriz, gora egin du bolumenean eta balioan (+% 11,7 eta +% 1,6). Bi kasuetan, balioaren bilakaera bolumenarena baino hobe bada ere, ondorioek ñabardurak dituzte balio unitarioa kontuan hartzean. Hala, 2024ari dagokionez, esportatutako tona ez-energetikoaren balioa (2.358 euro/tona) garestitu egin da (+% 2,0), eta inportatutakoa (1.485 euro/tona), berriz, merkatu egin da (-% 9,1). Ondorioz, kanpoko jarduera ez-energetikoak (manufaktura-industria) bere lehia-posizioa hobetzen du, esportatutako balio unitarioa handitzen duelako eta inportatutako kostu unitarioa murrizten duelako.

Manufaktura-industriak esportazioak murriztu eta inportazioak gehitu ditu, baina lehia-posizioa hobetu du (balio unitarioa)

2025ean, Bizkaiak kanpoko merkataritza-defizit ez-energetikoa handitu du (891,8tik 1.745,9 mila tonara); hala ere, diruari dagokionez, superabita izaten jarraitzen du, nahiz eta 2024an baino txikiagoa izan (1.498,5 milioi eurotik 907,0 milioi eurora).


Bizkaiko kanpo-merkataritza; diru-bolumena eta -balioa

	III.2025	IV.2025	Δ % urte artean	2025	Δ % urte artean
Bolumena (mila tona)					
Esportazioak, guztira	1.598,9	1.690,2	2,4	6.587,5	-11,2
Esportazio ez-energetikoak	985,9	973,1	-3,8	4.009,3	-6,5
Esportazio energetikoak	613,0	717,2	12,1	2.578,1	-17,5
Inportazioak, guztira	4.443,7	4.491,8	1,8	17.005,5	-5,2
Inportazio ez-energetikoak	1.517,9	1.374,7	9,3	5.755,2	11,7
Inportazio energetikoak	2.925,7	3.117,1	-1,1	11.250,3	-12,0
Balioa (milioi eurotan)					
Esportazioak, guztira	2.472,8	2.747,6	-2,5	10.745,0	-9,3
Esportazio ez-energetikoak	2.178,7	2.417,0	-2,8	9.452,9	-4,6
Esportazio energetikoak	294,1	330,5	-0,1	1.292,2	-33,4
Inportazioak, guztira	3.548,6	3.381,0	-6,5	14.154,7	-8,6
Inportazio ez-energetikoak	2.163,8	2.011,0	2,2	8.545,8	1,6
Inportazio energetikoak	1.384,8	1.369,9	-16,9	5.608,9	-20,8

Bizkaiko datuak. 1. Uztailako eta abuztuko behin-behineko datua. 2. Iazko uztaila-abuztuarekin alderatuta
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bestalde, energia-jarduerak²¹ balantze negatiboarekin itxi du urtea, bolumena eta, batez ere, esportazio-jardueran (-% 17,5, -% 33,4) eta inportazioan (-% 12,0 eta -% 20,8) duen balioa murriztu baititu. Horrela, esportazioaren (501 euro/tona) eta inportazio energetikoaren (499 euro/tona) balio unitarioa murriztu egin da (-% 19,2 eta -% 9,9) 2024aren aldean; kasu honetan, diferentzial negatiboa azaleratu da, eta ezohiko urtea izan da, jardueraren beraren barruko eta kanpoko arrazoiengatik.


Esportazio eta inportazio ez-energetikoen ratioa



Bizkaiko datuak. 2025eko apiril-maiatzari dagozkien bigarren hiru hilabeteetako datuak.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Bizkaiko esportazioak lurraldeko BPGd-aren % 20,7 dira. Hala, berretsi egiten da pisu-galeraren joera; izan ere, industriaren dinamismo txikiaren emaitza da, hori baita esportazioaren oinarria. Zerbitzuak, aldiz, handitu egin dira, eta horiek lagundu dute BPGd-aren hazkundera modu erabakigarrian.

Esportazioen ratioa BPGd-rekin alderatuta (%)



Bizkaiko datuak
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eta Hiruhilekoetako kontuak (Eustat, 2022ko oinarria)

²¹ Petronorren jarduerak baldintzatuta (bere jardueraren funtsezko geldialdi teknikoa, 2025eko maiatza eta ekaina bitartean).


ENPRESA-JARDUERA

Sozietate berriak

Urteko laugarren hiruhilekoan 292 sozietate berri eratu dira Bilbon, hau da, % 37,7ko urte arteko hazkundea eta 80 sozietate berri gehiago, hiruhileko berean sortutako 300 sozietate berrien langara hurbiltzeaz gain. Hiruhilekoen arteko bilakaera ere positiboa izan da (+% 45,3 eta hirugarren hiruhilekoan baino 91 sozietate berri gehiago).

Urte osoan 984 sozietate berri eratu dira, 2024an baino % 13,9 gehiago. Kopuru horrek esan nahi du 2021etik etengabe handitzen ari den sozietate berrien sorreran hazkunde-profila sendotu dela.

Merkataritza-sozietate berriak



Merkataritza-sozietate berriak

	III. 2025	IV. 2025	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	2025	Δ % urte artean
Sozietate berriak	201	292	45,3	37,7	984	13,9
Lehenengo Sektorea	1	0	--	--	6	500,0
Industria eta energia	3	20	566,7	150,0	44	-12,0
Eraikuntza	28	35	25,0	20,7	120	30,4
Zerbitzuak	169	237	40,2	36,2	814	12,9

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Jardueraren sektorekako analisiari begiratuta, ikus daiteke sortutako sozietate berri gehienak zerbitzuen sektorekoak direla (237 enpresa), eta sortutako sozietate guztien % 81,2 dira. Jarduera-adarren arabera, sozietate gehien sortu dituzten jarduerak jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (41), finantza- eta aseguru-jarduerak (39), eraikuntza (35) eta ostalaritza (34) dira. Guztira, lau jarduera horiek Bilbon sortutako elkarleen erdia dira.

Sozietate gehien sortu dituzten jarduerak (2025eko IV. hiruhilekoan)

Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoak	41
Finantza- eta aseguru-jarduerak	39
Eraikuntza	35
Ostalaritza	34

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Desegindako sozietateak

Sozietateen desegiteari dagokionez, laugarren hiruhilekoan 103 sozietate desegin dira, hau da, urte arteko % 6,4ko jaitsiera. Urteko balantzearen arabera, Bilbon 408 sozietate desegin dira, 2024an baino % 3,6 gehiago (14 sozietate gehiago deseginda).

103 sozietate desegin dira laugarren hiruhilekoan

Hala eta guztiz ere, urteko saldo garbia (sortutako sozietateak ken desegindakoak) positiboa da (576 sozietate), eta zerbitzuak nabarmentzen dira, 476 sozietateko saldo garbiarekin eta ondoren eraikuntza (77 sozietate) eta industria eta energia (22 sozietate).

Desegindako sozietateak

	III. 2025	IV. 2025	Δ % hiruhileko artean	Δ % urte artean	2025	Δ % urte artean
Desegindako sozietateak	72	103	43,1	-6,4	408	3,6
Lehenengo Sektorea	1	1	--	--	5	--
Industria eta energia	9	1	-88,9	-75,0	22	10,0
Eraikuntza	9	16	77,8	77,8	43	-12,2
Zerbitzuak	53	85	60,4	-12,4	338	4,0

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Azkenik, urteko laugarren hiruhilekoan desegindako sozietate gehien dituzten jarduerak hauek dira: jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (20), eraikuntza (16), merkataritza (15) eta higiezin-jarduerak (12).

Sozietate gehien desegin dituzten jarduerak (2025eko IV. hiruhilekoan)

Jarduera profesional, zientifikoak eta teknikoak	20
Eraikuntza	16
Merkataritza	15
Higiezin-jarduerak	12

Iturria: Merkataritza Erregistroa

IV. hiruhilekoa 2025

	Azken datua	Adierazleak Δ Urte artean (%)	Aldia
LAN-MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milaka)**	178,1	-2,2	IV. hiruhilekoa
Biztanleria okupatua (milaka)**	156,6	-2,7	IV. hiruhilekoa
Biztanleria langabetua (milaka)**	21,5	1,4	IV. hiruhilekoa
Langabezia-tasa (%)**	12,08	0,4	IV. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsona-kop.)**	20.876	-0,9	Abendua
Afiliatuak (kop.)	201.882	1,4	Abendua
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	32.470	2,5	IV. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Afiliatuak	20.667	-0,9	Abendua
Kontsumo-prezioak (indizea)***	101,3	3,0	Abendua
TURISMOA			
Ostatu-gauak (kop.)	551.956	5,2	IV. hiruhilekoa
Bidaariak (kop.)	290.455	9,3	IV. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaariak)	1,90	--	IV. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.309	2,5	IV. hiruhilekoa
Bidaarien aireko garraioa (kop.)	1.720.494	7,6	IV. hiruhilekoa
ENPRESA-JARDUERA			
Industria-produkzioa (indizea)**	320,4	2,3	IV. hiruhilekoa
Merkataritza-sozietate berriak (kop.)	292	37,7	IV. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	103	-6,4	IV. hiruhilekoa

* Ehuneko puntuak.

** Bilboko egoiliarak.

*** Bizkaiari dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentzia-aldiko agregazio-indizean oinarrituta. 2021eko oinarria Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituta: Eustat, SEPE, Lanbide, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EIN, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.